



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko abenduaren 30a

147. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, tributu-neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak bazter utzia (18. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, araudi fiskala aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (19. or.).
- Foru Legea, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Osoko Bilkurak onetsia (36. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, tributu-neurriei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, tributu-neurriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, tributu-neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honek hiru artikulua, bi xedapen gehigarri eta bi azken xedapen ditu.

Lehen artikulua aldaketa batzuk egiten ditu Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean, ondorioak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izateko.

Bat atalak 29.4 artikulua aldatzen du. Artikulu horrek tributu-zorren erantzuleen araubide orokorra arautzen du.

Aldaketaren xedea da tramitazio laburtu bat arautzea erantzukizuna deribatzen den kasurako, tributu-likidazioen proposamenetan egun agintzen duen ereduarekin bat.

Hona prozedura: erantzuleari jakinarazten zaio erantzukizuna deribatze egintzaren proposamena, erantzukizun horrek eduki beharko lukeen zenbaterainokoa zehaztuta, eta hamabost eguneko epea ematen zaio alegazioak aurkezteko. Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada edo berriaz uko egiten bazaio alegazioak aurkezteari, erantzukizuna deribatze egintza jakinarazi dela ulertuko da, proposatutako zenbaterainokoa barne. Hau da, alegaziorik ez badago, proposamen hori erantzukizuna deribatze egintza bilakatzen da.

Esan gabe doa erantzukizuna deribatze egintzaren proposamena, betiere, erantzuleari honakoen berri emanek jakinarazi beharko dela: eskaera eragin duen autolikidazioaren edo likidazio administratiboaren elementu guztiak, defentsarako dituen bideak eta, lehen aipatutakoaren haritik, zein unetan eman behar den jakinaraztat erantzukizuna deribatze egintza.

Erregulazio honen helburua da gai honen inguruko tramite administratiboak arintzea alegaziorik ez dagoenean; izan ere, kasu horretan ez da beharrezkoa izanen erantzulearen deklarazioa modu formalean jakinaraztea, ez baita erantzun beharreko alegaziorik egonen.

Bi atalean, berriz, 52.5 artikuluan egindako akats bat zuzentzen da, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean 118. artikuluan okerreko bi aipamen egiten baitira.

Hiru atalak hogeita bigarren xedapen gehigarria eranstu du, tributu-zorra geroratzeko edo zatitzeko 2015ean egindako eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak ezartzei buruzkoa.

2012. urtean aurrenekoz aurreikusi ziren arlo honi buruzko berariazko neurriak, eta hurrengo urteetan eutsi egin zaie, aldaketa txiki batzuk eginda.

Esan beharra dago neurri hau, funtsean, 2014rako ezarritakoaren berdina dela.

Haxe da berritasun bakarra: zorren saldoaren %30 egiten duten errekargu eta interes berrituak ordaindu beharra kasu guztietara zabaltzen da. Orain hirugarren arauan bildu da beharkizun hori. Gaur arte, hilean 12.000 eurotik beherako kopurua egiten zuten gerorapen eskaeretan baizik ez zen exijitzen ordainketa hori. Neurri honekin, premiamendu bidezko bigarren gerorapenen baldintzak gogortzen dira.

Lau atalean hogeita hirugarren xedapen gehigarria eranstean da, zerga arloko berandutza interesa urtean % 4,375koa izanzen dela finkatzeko.

Konstituzio Auzitegiaren doktrinaren arabera, berandutzako interes-tasak berdina izan behar du nahitaez lurralde nazional osoan, eta, beraz, Estatuko 2015eko aurrekontuen lege proiektuan % 4,375eko berandutza interesa ezarri denez, Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan ere hori bera onetsi beharko da.

Bigarren artikuluan, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko hondakin uren saneamenduko kanonerako tarifak onetsi dira.

Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen saneamenduko kanona sortu zen, zerbitzua emateari atxikitako zerga baliabidea izateko.

Azaroaren 26ko 34/2013 Foru Legearen bidez aldatu egin zen 10/1988 Foru Lege hori, kanonaren tarifen aldizkako eguneratzea Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bidez onetsi behar ez izateko nahitaez, ordura arte bezala; horren ondorioz, gaur egun 13. artikuluan hau dio: "aplikatu beharreko tarifen zenbatekoa urtero finkatuko da foru lege batean," eta horretan kontuan hartuko dira, besteak beste, finantza askitasuna, progresibotasuna ezarpenean eta tratu berdintasuna erabiltzaileentzat, sortzen duten kutsadura mailaren arabera.

Saneamenduko kanonaren tarifetarako igoera txiki bat proposatzen da, urteik urtera Plan Zuzentzailearen gastuak handituz doazelako. Araztegi gehiago daude, eta ingurumen arloko betebeharrak direla eta, isurketen tratamenduak garestiagoak dira orain.

Hirugarren artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legea aldatzen du; aldatetaren xede honako departamentu hauen tasa batzuk dira: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentua, Hezkuntza Departamentua eta Sustapen Departamentua.

Azkenik, lehen xedapen gehigarriak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak ezartzen ditu; bigarren xedapen gehigarriak, berriz, ezartzen du Sodenaren egoera berriari, sozietate mugatu bihurtu baita, aplikatuko zaiola Sociedad de Desarrollo de Navarra (Sodena) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legea.

Lehenengo artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

2015ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko manu hauen testua honakoa izanen da:

Bat. 29.4 artikulua.

"4. Betiere, tributu-zorren ordainketa exijitzeko administrazio-ekintza erantzuleei deribatzen, administrazio-egintza bat beharko da, zein, interesdunari entzunaldia eman ondoren, erantzukizuna eta bere mota deklaratu eta haren zenbaterainokoa zein den zehaztuko baita.

Egintza hori jakinarazi eginen zaie, likidazioaren elementu funtsezkoak adieraziz, erregelamendu bidez finkatzen den moduan.

Espedienteari hasiera emateko unean organo eskudunak erantzukizuna deribatzen egintzarako proposamen bat egiteko bide ematen duten elementu guztiak baditu, interesdunari proposamen hori jakinaraziko zaie, adieraziz espedientearen epea dela eta hamabost eguneko epea dutela bidezkoztat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Hamabost eguneko epe hori iragan ondoren alegaziorik aurkeztu gabe edo epe horretan aurkezteari uko eginda, erantzukizuna deribatzen egintza proposamenean jasotako eran eman eta jakinarazi egin dela ulertuko da, eta interesdunari hala adieraziko zaie jakinarazpenean. Ordainketa egiteko eta errekurtsioa edo erreklamazioa aurkezteko epeak kontatzen hasteko eguna izanen da erantzukizuna deribatzen egintza jakinarazitzat ematen den eguna.

Ondorio horietarako, egindako proposamenean jaso beharko dira zorra eragin duen autolikidazioaren edo likidazio administratiboaren funtsezko elementuak, erregelamenduz ezartzen den moduan, egintza aurkatzeko bideak eta epeak, zorra ordaintzeko epea eta modua, bai eta erantzukizuna deribatzen egintza jakinarazitzat emateko modua eta unea ere adieraziz, aurreko paragrafoan esandakoarekin bat, une horretatik aurrera erantzulearen izanen baitira zordun nagusiaren eskubide guztiak.

Erantzukizunaren deklarazioari buruzko erabakiaren kontrako erreklamazio edo errekurtsioaren bidez, zor-eskaera egiteko bide ematen duen egintzaren oinarriaz gainera, oinarri horretako likidazioak ere aurkatu ahal izanen dira. Errekurtsio edo erreklamazio horien ondorioz, ezin izanen dira berrikusi beste zergadunentzat irmo bilakatu diren likidazioak, ezpada errekurtsioa edo erreklamazioa

aurkeztu duen erantzulearen beharkizunaren zenbatekoa.

Dena dela, 30.4 artikuluan ezarritako kasuetan, ezin izanen dira oinarri horrek hartzen dituen likidazioak aurkatu, erantzukizunaren zenbateko osoa baizik. Orobat, aipatu artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez da 70.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko, ateratzen den zenbateko deribatua zorretatik nahiz tributu-zehapenetatik etorri?

Bi. 52.5 artikulua.

52.5 artikuluan, bigarren paragrafoan 118.2 artikuluz egiten den aipamena eta laugarren paragrafoan 118.4 artikuluz egiten dena 118.3 eta 118.5 artikuluez eginak direla ulertuko da, hurrenez hurren.

Hiru. Hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2015ean egiten diren eskaerei aplikatzen zaizkien neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatze 2015ean egiten diren eskaerei, betiere dirua biltzeko kudeaketa lana Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari badagokio, honako xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

Lehena. Geroratu beharreko zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa denean, ez da bermerik exijituko, betiere geroratu beharreko zorrari dagokion zerga edo kontzeptua sarturik ez badago aipatutako erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenetan, gerorapenak hileroko maiztasuna badu eta ondoko bi inguruabarretako batean badago:

a) Epea hiru urtetik gorakoa ez izatea eta eskaiztaileak tramitatu aurretik sartzen badu geroratzeko eskatutako zorraren % 30.

b) Epea bi urtetik gorakoa ez izatea eta eskaiztaileak tramitatu aurretik sartzen badu geroratzeko eskatutako zorraren % 20.

Bigarrena. Bai borondatezko epean bai ordainarazpen aldi egindako geroratzeko edo zatikatze eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 12.000 eurotik beherakoa bada, geroratzeko edo zatikatze epea urtebetekoa gehiezin, eta maiztasuna hilerokoa, ez da bermerik exijituko, ez eta ordainketa egin beharra ere kasuan kasuko tramitazioaren aurretik.

Hirugarrena. Premiamendu bidez geroratu edo zatikatu beharreko zorraren artean baldin badaude bide horretan berean lehenago geroratu edo zatikatutako zorrak, kitatuta daudenak, zor horien saldoaren % 30 ordaintzeko exijituko da, bai eta bete gabeko geroratzeko edo zatikatzean kontuan hartu ziren zorrei dagozkien ordainarazpen aldiko errekaruak eta interesak ere, osorik, horiek ordaintzeko beharra atzeratu egin baitzen geroratzeko onartu zenean, 117.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Zenbateko horiek exijituko dira, halaber, berme eratzeko beharra dakarten geroratzeko edo zatikatzeetan, Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Geroratu edo zatikatze eskaeran sartutako gainerako zorretarako, baldin badago, aurreko lehen eta bigarren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Laugarrena. Borondatezko epeko zorraren kasuan, geroratzeko edo zatikatze eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta osotara kitatu gabe badaude tributu-zorraren lau geroratzeko edo gehiago, edo Nafarroako Ogasun Publikoaren beste eskubide ekonomiko batzuen ordainketaren lau geroratzeko edo gehiago, salbu eta geroratzeko eskatutako zorrak bermatzen badira edo aurrekoak bermaturik badaude aipatutako Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin soil-soilik?”

Lau. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Berandutza interesak.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, foru lege honen 50.2.c) artikuluan aipatzen den berandutza interes-tasa, % 4,375ekoa izanen da urtean?”

Bigarren artikulua. Hondakin uren saneamenduko kanonaren tarifak.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, saneamenduko kanonaren tarifak hauek izanen dira:

a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur-erabilerekin aplikatu beharreko karga tasak: 0,57 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako ur-erabilerekin, etxekoak ez direnei, aplikatu beharreko karga tasak: 0,71 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren

28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek eman beharreko baimen administratiboak dituzten erabiltzaileek: 0,085 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur-banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamenduko kanonari ur-ihesak daudenean isuria kalkulatzeko den kasurako, edo hobari sozialak aplikatzeko.

3. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegiatiko lohien lerretan:

Neurketa	Prezioa
5 m ³ gehienez	41,50 euro
10 m ³ gehienez	83,00 euro
10 m ³ -tik gora	8,30 euro/m ³

4. Aurreko zenbatakoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

Hirugarren artikulua. Tasa eta Prezio Publiko-
ei buruzko Foru Legea.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen manu hauen testua honakoa izanen da:

Bat. 43. artikuluan, 9. tarifa gehitzen da:

“9. tarifa: Apustu dendak.

1. Ustiatzeko baimena: 437,58 euro.

2. Ustiatzeko baimena berritzea: 202,98 euro”

Bi. 51. artikulua, 1.3 tarifa.

“3. Beren ezaugarri teknikoengatik edo darmaten zamarengatik, baimendutako gehieneko masa eta neurriak gainditu edo erregelamenduz ezarritako gutxieneko abiadurara iristen ez diren ibilgailuak eskoltatu eta kontrolatzea eta haien zirkulazioa antolatzea: 32 euro, ordu eta foruzain bakoitzeko”

Hiru. 87. artikuluan, 5. tarifa gehitzen da:

“5. tarifa: Aldi baterako ehiza baimenak: 12 euro baimen bakoitzeko”

Lau. 91. artikulua, 2. eta 3. tarifak:

“2. tarifa: Arrantza barruti arruntean: 10 euro”

3. tarifa. Arrantza intentsiboko barrutian: 10 euro”

Bost. VII. bis tituluko IV. kapituluaren testu berria:

“IV. kapitulua

Arrantza kontinentaleko lizentziagatiko tasa

92. artikulua. Zergapeko egintza.

Tasaren zergapeko egintza da arrantza kontinentalean aritzeko, lege indardunen arabera, beharrezkoak diren lizentziei dagozkien zerbitzu administratiboak ematea.

93. artikulua. Subjektu pasiboak.

Arrantza kontinentalerako beharrezkoak diren lizentziak eskatzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasaren subjektu pasiboak.

94. artikulua. Sortzapena.

Lizentziak eskatzen diren unean sortu eta exijituko da tasa.

95. artikulua. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

1. 5 urteko indarraldia duen lizentziarako: 60 euro.

2. Urteko lizentziarako: 12 euro”

Sei. 99. artikuluan, 18., 19. eta 20. tarifak gehitzen dira:

“18. tarifa: Kirol teknikariaren titulua.

1. Tarifa arrunta: 50,20 euro.

2. 1. kategoriako familia ugaria: 25,10 euro.

3. 2. kategoriako familia ugaria: 0,00 euro.

19. tarifa. Goi mailako kirol teknikariaren titulua.

1. Tarifa arrunta: 72,80 euro.

2. 1. kategoriako familia ugaria: 36,40 euro.

3. 2. kategoriako familia ugaria: 0,00 euro.

20. tarifa. Lanbide Heziketako teknikariaren edo goi mailako teknikariaren titulua lortzeko proba libre modularretan izena ematea.

1. Tarifa arrunta: 10,00 euro.

2. 1. kategoriako familia ugaria: 5,00 euro.

3. 2. kategoriako familia ugaria: 0,00 euro”

Zazpi. 119. artikulua. 2.3 tarifa:

“2.3. Erabilera bereziko bidaiarien garraio publikorako baimenak ematea edo berritzea: 14 euro”

Zortzi. 119. artikulua. 6.1 tarifa:

“6.1. Ondoko azterketa hauek egiteko eskubi-deengatik: garraiorako lanbide- gaitasunaren titulua lortzekoa, segurtasun arloko aholkulariaren titulua lortzekoa edo berritzekoa, edo gidariaren lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzekoa: 22 euro”

Bederatzi. 119. artikuluan, 6.3. tarifa gehitzen da:

“6.3. Lanbide-gaitasunaren edo segurtasun arloko aholkulariaren titulua edo gidariaren gaitasun txartela berritzea titularraren datu pertsonalak aldatu direlako: 5 euro”

Hamar. 119. artikulua. 7 tarifa:

7.2 eta 7.6 tarifak ezabatu dira eta 7.2 tarifa berria sortu da.

“7.2. Ikastetxearen titulartasuna aldatzea: 178 euro”

Hamaika. 127. artikulua:

"127. artikulua. Tarifak.

		EUROAK
1. TARIFA	Eraikuntzak egitea, berregitea edo haien bolumena handitzea. Gasolina-zerbitzuguneak ezartzea eta gasolina eta lubrikatzaileak banatzeko aparatuak instalatzea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	40,00
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	75,00
	3. 6.000tik 12.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	100,00
	4. 12.000tik 30.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	155,00
	5. 30.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	210,00
2. TARIFA	Eraikuntzen kontserbaziorako obrak egitea:	
	1. 3.000 euro bitarteko aurrekontua dutenak:	33,00
	2. 3.000tik 6.000 eurora bitarteko aurrekontua dutenak:	42,00
	3. 6.000 eurotik gorako aurrekontua dutenak:	55,00
3. TARIFA	Ibitura edo eustorma eraikitzea:	
	1. Ibitura ez gardena (fabrika-obra edo heskaia), metro linealeko:	3,75 (gu. l. 30)
	2. Ibitura gardena (hesola eta burdin haria edo sarea), metro linealeko:	2,00 (gu. l. 30)
	3. Eustorma, metro linealeko:	5,00 (gu. l. 30)
4. TARIFA	Uraren, elektrizitatearen, gasaren, telefonoaren eta abarren lurpeko hodiak paratzea:	
	1. Hodia babes eremuetan barna eramatea:	2,00 (gu. l. 30)
	2. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, metro 1,00 bitarteko diametrokoa, metro linealeko:	5,00 (gu. l. 30)
	3. Galtzada gurutzatzeko eroanbidea, fabrika-obraz edo zubi bidez, behin-behineko desbideraketa barne:	157,70
5. TARIFA	Aireko lineak instalatzea:	
	1. Goi tentsioko lineako zutoin edo metalezko dorre bakoitzeko, babes eremuetan:	10,85 (gu. l. 53)
	2. Behe tentsioko lineako edo bestelako lineetako zutoin bakoitzeko, babes eremuetan:	5,00 (gu. l. 36)
	3. Errepidea goi tentsioko linea batez gurutzatzea, zelaigunearen gaineko metro linealeko:	4,30 (gu. l. 53)
	4. Errepidea behe tentsioko linea batez edo bestelako linea batez gurutzatzea; zelaigunearen gaineko metro linealeko:	3,10 (gu. l. 36)
	5. Babes eremuan dagoen transformazio zentro bakoitzeko:	60,70
6. TARIFA	Sarbideak, gurutzaguneak eta lotuneak:	
	1. Finketarako sarbideak, zeladurak, aparkalekuak edo espaloiak egin, konpondu eta egokitzea:	40,00
	2. Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdinetako lotuneak eraikitzea:	204,00
7. TARIFA	Harrobielako eta baso lanetako materialak gordetzea:	
	1. Sei hilabetetik behera:	35,80
	2. Gehienez urlebetelean:	57,85
8. TARIFA	Bestelako obra eta aprobetxamenduak:	
	1. Arbolak bota edo landatzea:	40,00
	2. Baskulak instalatzea:	40,00
	3. Babes eremuan hobi septikoa egitea:	42,10
	4. Lurpeko ur edo gas gordailua eta kubelak egitea:	40,50
	5. Informazio seinaleak eta karlelak jartzea, uritateko:	35,80
	6. Eraikinak eraistea:	35,80
	7. Finkak zelaitu eta betelana egitea:	35,80
	8. Aurrekoetan sartzen ez diren obra mota guztiarako:	35,80*

Hamabi. 128. artikulua.

"128. artikulua. Fidantzak.

Emandako baimenen ondorioz errepideetan izan daitezkeen kalteen erantzukizunari dagokionez, zilegi izanen da honako fidantza hauek jaritzeko exijitzea:

		EUROAK
1.	Errepidea "sator" batez gurutzatzea:	1.100
2.	Errepidea lurpetik gurutzatzea:	1.100
3.	Goi tentsioko linea airez gurutzatzea:	1.100
4.	Behe tentsioko linea airez gurutzatzea:	285
5.	Finketarako sarbideak:	285
6.	Zur-ustiategiak:	1.100
7.	Maila bereko gurutzaguneak eta maila desberdineko lotuneak eraikitzea, errepideak fabrikako obrekin edo zubiekin gurutzatzea eta behin-behineko desbideraketak egitea:	Obra exekutatzeko aurrekontuaren % 6,5. (1.000 euro gutxienez)
8.	Tona-kopuru mugatua duten errepideetatik ibilgailu astunak pasatzea:	1.000tik 30.000ra
9.	Garraio bereziak Nafarroako Errepideen Sarean barna pasatzea (taularen arabera):	3.000 5.000 10.000 100.000
10.	Bestelako baimenak:	360

Garraio berezien fidantzen zenbatekoa, ibilbide berean eta ibilgailuaren ezaugarri hauekin:

Zabalera (m)	$4,81 < A \leq 5,50$	$5,51 < A \leq 6,00$	$A > 6,01$
Luzera (m)	$45,10 < L \leq 55,09$	$55,10 < L \leq 60,09$	$L > 60,10$
Altuera (m)	$4,65 < h \leq 4,75$	$4,76 < h \leq 4,90$	$h > 4,90$
Gehieneko masa edo tara	$130,10 < P \leq 160,09$	$160,10 < P \leq 180,09$	$P \geq 180,10$
Masa ardatzeko (Tn/ardatza)	$14,10 < p \leq 15,09$	$15,10 < p \leq 16,09$	$p \geq 16,10$
Fidantzaren zenbatekoa	3.000 euro	5.000 euro	10.000 euro
Fidantza edo abal bakarraren edo osoaren zenbatekoa, garraiolari bakoitzeko urteko:	100.000 euro".		

Hamahiru. 146. artikulua.

- 1. tarifa. Izen berria.

“Jatorriaren eta osasunaren gidak edo agiri baliokideak ematea (web gidak ez). Nazioarteko garraioaren osasun arloko ziurtagirien kasuan (TRACES), aplikatu beharreko tasa bikoitza izanen da. Agiri bakoitzeko gutxieneko zenbatekoa 1,20 eurokoa izanen da eta gehienekoa 30 eurokoa.”

- 2. tarifa. 3. puntuaren izen berria eta aldaketa.

“Baldintza bereziak agiriak ematean.”

“3. TRACES agiria eman aurreko ikuskapena, abeltzaintzakoak ez diren espezieen kasuan eta abeltzaintzaren beste produktu batzuetarako: 25,00 euro”

- 4. tarifa. Puntu berria sortzea, 7.a.

“7. Esne gordinaren laginak hartzea eta horien kalitatea analizatzea: 75,00 euro”

- 5. tarifa. Aldaketa.

“5. Ekidoen erreseina edo zaldi-txartela ematea, abere bakoitzeko: 15:00 euro”

- 7. tarifa. Aldaketa.

“7. Batasunaren barrenean animalia biziaren salerosketan aritzen diren agenteen erregistroa eta baimena behar duten animalia biziak garraiatzen dituzten ibilgailuen erregistroa: 25,00 euro”

- 9. tarifa. 1. puntuaren aldaketa eta 2. puntua kentzea.

“1. Abeltzaintzako ustiategiaren erregistroan inskribatzea: 10,00 euro”

- 2. puntuko tarifa kendu da.

- 10. tarifa. 1.7 eta 2.3 puntuak sortzea eta 3.1etik 3.9ra bitartekoak kentzea.

“1.7. PCR: 10,00 euro”

“2.3. Mikobakteriorik badagoen aztertzea: 25,00 euro”

3.1etik 3.9ra bitarteko puntuetako tarifak kentzen dira.

- 11. tarifa. Testu berria.

11. TARIFA	Establezimenduen erregistro ofizialean inskribatzea:	Euroak
	1. Establezimenduak eta bitartekariak, abereentzako elikagaiak:	50,00
	2. Albaitaritzako botiken establezimenduak:	50,00
	3. Azienda errepidez garraiatzen duten ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko zentroak:	50,00
	4. Giza kontsumorako ez diren eta animaliengandik datozen azpi produktuak eta establezimenduak:	50,00
	5. Establezimenduen beste inskripzio ofizial batzuk:	50,00
	6. Aziendaren elikadurarekin loturiko ibilgailuak inskribatzea:	25,00”

Hamalau. XI. tituluaren IV. kapitulua.

XI. tituluko IV. kapitulua indargabetzen da (148. artikulutik 151.era bitartekoak).

Hamabost. XI. tituluari IX. kapitulua gehitzea.

“IX. kapitulua. Europar Batasuneko etiketa ekologikoa emateagatik tasa.

164. ter artikulua.

- 1. Zergapeko egintza.

Tasaren zergapeko egintza Europar Batasuneko etiketa ekologikoa ematea da.

- 2. Subjektu pasiboa.

Tasaren subjektu pasiboak Europar Batasunaren etiketa ekologikoa eskatzen dutenak dira.

- 3. Sortzapena.

Tasa Europar Batasunaren etiketa ekologikoa erabiltzeko eskaera aurkezten denean sortu eta exijituko da.

- 4. Tarifak.

Tarifa, oro har, 400 eurokoa izanen da.

Halere, tarifa 200 eurokoa izanen da enpresa txiki eta ertainen kasuan eta mikroenpresen kasuan (Batzordearen 2003/361/EE Gomendioaren definizioaren arabera) eta garapenean dauden herrialdeetako operadoreen kasuan.

Tarifa honetan ez da sartzen eskaeraren xede diren produktu edo zerbitzuen gainean egin beharreko proben edo egiaztapenen kostuari dagokion inolako elementurik. Kostu horiek eskatzaileek ordainduko dizkiete probak egiteko behar den gaikuntza duten entitateei.

5. Hobariak.

Eskatzeko tasa % 30 murriztuko zaie Ingurumeneko Kudeaketa eta Auditoretzako Batasunaren Sisteman erregistratutako eskatzaileei edo % 15, berriz, ISO 14001 arauaren arabera ziurtagiria dutenei. Murrizketak ezin dira metatu. Bi sistemak betetzen badira murrizketa handiena baizik ez da aplikatuko.

Murrizketa egiteko baldintza izanen da eskatzaileak berariaz konpromisoa hartzea etiketa ekologikoa duten bere produktuek kontratuaren balio epean Europar Batasunaren etiketa ekologikoaren irizpideak osotara betetzen dituztela bermatzeko, eta konpromiso hori modu egokian sartzeko ingurumenaren arloan daraman politikan eta ingurumen arloko helburu zehaztuetan.”

Lehen xedapen gehigarria. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak.

2015ean hasten diren zergaldietan, Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 27. artikuluan aipatutako diruaren balio-galera zuzentzeko koefizienteak ondoko hauek izanen dira, eskualdatutako ondare-elementuak eskuratu diren urtearen arabera:

1983 eta aurrekoak	2,422
1984	2,194
1985	2,047
1986	1,947
1987	1,886
1988	1,809
1989	1,720
1990	1,651
1991	1,593
1992	1,540
1993	1,478
1994	1,421

1995	1,351
1996	1,287
1997	1,255
1998	1,241
1999	1,233
2000	1,228
2001	1,202
2002	1,189
2003	1,170
2004	1,158
2005	1,144
2006	1,122
2007	1,097
2008	1,063
2009	1,040
2010	1,028
2011	1,028
2012	1,008
2013	1,000
2014	1,000
2015	1,000

Bigarren xedapen gehigarria. Sociedad de Desarrollo de Navarra (Sodena) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen aplikazioa.

2011ko uztailaren 1ean eraturako Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. sozietate publikoari aplikatzekoak izanen zaizkio Sociedad de Desarrollo de Navarra (Sodena) sortzeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legean jasotako xedapenetatik beren izaerarengatik eta norainokorengatik indarrean daudenak.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emanen ditu.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako eraginekin.

Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru legea onetsi zuen: "Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betetz, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena

ZIOEN AZALPENA

I

Babestutako etxebizitzen eta haien eranskinen salmenta eta alokairuko gehieneko prezioa Nafarroako Gobernuak ezartzen du urtero, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan aurreikusitako formula aplikatuz. Prezio horiek urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak izateko ezartzen dira, modulu ponderatuen eta ponderatu gabeen arabera; modulu horiek foru lege horretan zehaztu, eta artikulua horretan azaltzen den formula erabiliz kalkulatu dira.

2012ko abenduaren 18an, Kontuen Ganberak Etxebizitza babestuaren moduluari buruzko fiskalizazio-txostena egin zuen, 2005eko ekitalditik 2012ko ekitaldira bitartekoa, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

Modulua zehaztu eta eguneratzeari dagokionez, Kontuen Ganberak modulua eguneratzeko formula aztertzeke gomendioa egin zuen, berri-

kustean kontuan har zitezten, besteak beste, krisi ekonomikoaren egungo testuinguruak ekarritako baldintza sozioekonomiko berriak.

Arestian esan dugunez, Kontuen Ganberak 2012ko abenduaren 18an eman zuen bere txostena, eta etxebizitza babestuen gehieneko prezioek urtarrilaren 1etik aurrera izaten dituzte ondorioak. Horregatik, Nafarroako Gobernuak, presako gaia zela ikusirik, urte berriarekin eta 10/2010 Foru Legearen 10. artikuluan jasotako formularen aplikazioaren ondorioz moduluak berriz igo zitezkeelako, berehala onetsi zuen abenduaren 28ko 2/2012 Foru Lege-dekretua, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen, eta, halatan, etxebizitzen prezioa izoztu egin zuen urte hartan.

Foru lege-dekretu hori baliozkotzeko arauzko tramitean zehar, Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen foru lege proposamen gisa tramitatzea, eta, erabaki haren ondorioz, maiatzaren 15eko 17/2013 Foru Legea onetsi zen, Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2013 eta 2014an aplikatuko zaizkien moduluak ezartzen dituen; arau horren bidez, etxebizitzen prezioa 2013an izoztuta mantentzeaz gain, neurria 2014rako ere luzatu zen.

Horrela, etxebizitza babestuen prezioa ez da aldatu 2012., 2013. eta 2014. urteetan.

Nafarroako Gobernuak behin baino gehiagotan agertu izan da prest Nafarroako Parlamentuko taldeekin adosteko zer modutan zehaztu etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak. Horregatik, 2014an gaudenez, eta urte honen amaieran ezarri behar direnez 2015ean aplikatu beharreko moduluak, foru lege honen xedea da modulu horiek zehaztea hurrengo urterako, eta etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak etorkizunean kalkulatzeko modua finkatzea.

Kontuen Ganberaren gomendioak aintzat hartuz, eta ikusirik, batetik, egungo formularen aurreikusitako erreferentziako adierazleak batzuetan datuak ez direla eguneratu, eta, bestetik, adierazle horietan ez direla kontuan hartzen sustapen bakoitzaren eraikuntza arloko berezitasunak, erabaki da

modulua kalkulatzeko ezarriko den sistemak kon-tuan hartuko dituela etxebizitza babestuen eraikuntzak eta sustapenak dituen egiazko kos-tuak, etekin tarte zentzuzko bat gehituta.

Formula horren helburu nagusia da oreka lor-tzea xede publikoen –etxebizitza babestua eskura-tzeko aukera– eta etxebizitza mota honen susta-penek eduki beharreko errentagarritasun ekonomiko egokiaren artean; formularen alderdi on hauek aipatu daitezke:

Formula berriak alde batera uzten du zenbait materialen eta lan-eskuaren kostuen aldaketa, kostu horiek ez baitute beti zehatz-mehatz jaso-tzen sustapenaren kostuetan izandako aldaketa orokorra.

Formula berria loturik dago sustapenaren kostu orokorrekin, eta aldagaietako bat exekuzio mate-rialaren aurrekontua da; etxegilearen eta susta-tzailearen kostu batzuk, berriz, finkotzat hartzen dira, eta haien multzoa konstante gisa ageri da for-mulan; beste kostu batzuk, azkenik, aldagaitzat jo-tzen dira: lansari teknikoak, sustapenaren finantza kostuak, merkaturatze kostuak eta sustatzailearen etekina. Aldagai gisa hartzen diren kostuen urteko azterketak ezarriko du zein izanen den salmentako gehieneko balioa metro koadro erabilgarri bakoi-tzeko, eta horretatik aterako da moduluaren balioa.

Salmentako gehieneko prezioaren aldaketa exekuzio materialaren aurrekontuarekin lotuz gero, ez dira beharrezkoak izanen moduluaren aldaketa bereziak, eraikuntzan betekizun berriak ekar di-tzaketen arau-aldaketek eragindakoak, aldaketa horiek sustapenetako exekuzio materialaren aurre-kontuan islaturik agertuko baitira besterik gabe.

Horregatik beragatik, Nafarroan etxebizitza babestuen sustapenetan erabili ohi diren materia-len kalitatea hobetu edo okerragotuko balitz, horrek zuzenean eraginen luke kasuan kasuko exekuzio materialaren aurrekontuen aldaketa, eta, horrenbestez, moduluaren balioarena ere.

II

Bestetik, foru lege honen xedea da Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzea. Erregis-tro hori sortzeko beharra uztarturik dago Nafarro-an etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legean jasotako aurreikuspenekin. Egun, Espai-niako Gobernuak lehendakariak aurkeztutako konstituziokontrakotasuneko errekurtsuaren ondo-rioz, foru lege horren artikulua askoren aplikazioa etenda badago ere, arau horrek Etxebizitza Hu-tsen Erregistroa sortzeko agintzen dio Nafarroako Gobernuari.

Baina Nafarroako Gobernuak askoz harago joan nahi duten helburuak ditu arlo honetan. Horretarako, erregistro bat sortzeko asmoa du, eta bertan zentralizatu Nafarroako Foru Komunitatean dauden etxebizitzekin zerikusia izan dezaketen datu interesgarri guztiak. Interesa duen informa-zioa foru lege horren artikuluetan aletu eta xeha-tzen da; datu horietako bat da etxebizitza bat hu-tsik egoteko zantzuak izatea.

Era berean, Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorren lehentasunezko beste helburuetako bat da bere informazioan beste erregistro ba-tzuetan dagoena integratzea, bai Foru Komunitate-an dauden erregistroen kasuan (Lurralde Aberas-tasunaren Erregistroa edo Efizientzia Energetikoari buruzko Ziuertagiriaren Erregistroa) bai Estatuan dau-denen kasuan (Birgaitzeari, Hiri-berroneratzeari eta -berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Lege onetsi berriaren lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako zentsuak, adibidez).

Dudarik gabe, Etxebizitzaren Erregistro Orokorra informazio iturri nagusietako bat izanen da e-txebizitzaren arloan erabakiak hartzeko eta politika publikoen diseinua egiteko. Erregistroan informazio kopuru handia gordeko denez, hainbat arlotan neurri eraginkorrak hartzeko bide emanen du, hala nola egun dauden etxebizitzak birgaitu, berro-neratu eta berritzearen arloan, eta herritarrek e-txebizitza eskuratzeko aukerari dagokionez.

III

Horrez gain, foru lege honen bidez, hipoteka-ren ordainketari aurre egin ezinik ohiko etxebizitza galdu duten pertsonak babesteko Nafarroako Gobernuak jorratu duen bideari jarraitu nahi zaio. Orain arte, proposatu edo onetsi dira zenbait neu-rrari arlo honetan. Neurri horiei foru lege honetan berritik sartutakoa gehitu behar zaie orain, e-txebizitza babestuak alokatzeko baremoan pun-tuazioa izan dezakeen beste kontzeptu bat erant-siz. Neurri horrekin, aintzat hartu nahi da epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko hipoteka-exeku-zioko prozesuen ondorioz ohiko etxebizitzatik ate-rarazteko ebazpen judizial bat jaso duten per-tsonen egoera zaila, babestutako etxebizitza bat alokatu ahal izateko baremoan berariazko punta-zioa emanez.

IV

Amaitzeko, foru lege honetan beste neurri ba-tzuk ezartzen dira, prezio itunduko etxebizitzak desagertzea, adibidez. Babestutako etxebizitza mota hori Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubide-ari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Lege-

an ere desagertu zen. Baina foru lege horrek, bederatzigarren xedapen iragankorrean, araubide iragankor bat ezartzen du, praktikan etxebizitza mota hau etorkizunean eraikitzea ahalbidetzen duena. Halere, ikusirik zein den higiezin merkatuaren egungo egoera, prezio itunduko etxebizitzak saltzea ere nekeza izanik, beharrezkotzat jotzen da prezio itunduko etxebizitzaren existentzia ez luzatzea.

V

Aurreko guztia ahalbidetzeko, foru lege honek artikulua bat, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu bere edukia garatzeko.

Artikulu bakarra. Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 10. artikuluan, 2., 5. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Hona testuak:

“2. Etxebizitzaren arloko kontseilari eskudunari dagokio etxebizitza babestuen eta haien eranskinen gehieneko salmenta-prezioa eta errenta finkatzea, foru lege honetan xedatutakoaren arabera; kasuko foru aginduaren bidez justifikatu beharko ditu artikulua honen 5. idatz-zatian jasotako formularen ezarritako aldagaien balioak, eta foru agindu hori onetsi aurretik parte-hartze sozialeko prozesu bat garatu beharko du, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean xedatutakoaren arabera.

“5. Moduluak urtero eguneratuko dira, urte bakoitzeko urtarilaren 1etik aurrera ondorioak izateko, babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) salmentarako gehieneko balioa formula hau erabiliz kalkulatu:

$$VMu = ((1.27 + H/100) \times PEMu) / (0.755 - (F + Co + B)/100)$$
, hau da:

VMu = salmentarako gehieneko balioa, babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

H = Obra proiektuaren eta zuzendaritzaren lan sari teknikoaren kostua, exekuzio materialaren aurrekontuaren ehunekotan adierazia. Kostu horren balio normala % 7koa izanen da. Ehuneko bat gehitu edo kendu ahalko zaio justifikazio tekniko baten bitartez.

PEMu = Exekuzio materialaren aurrekontua, eurotan, metro koadro erabilgarri bakoitzeko. Hori

kalkulatzeko, sustapen baten azalera erabilgarri osoa haxe izanen da: etxebizitza eta garajeetarako azalera erabilgarri guztien batura eta trasteleku eta lokaletarakoen % 40.

F = Sustatzailearen finantza kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekotan adieraziak (VM). Kostu horren balio normala % 4koa izanen da. Ehuneko bat gehitu edo kendu ahalko zaio justifikazio tekniko baten bitartez.

Co = merkaturatzearen kostuak, salmentarako gehieneko prezioaren gaineko ehunekotan adieraziak (VM). Kostu horren balio normala % 2koa izanen da. Ehuneko bat gehitu edo kendu ahalko zaio justifikazio tekniko baten bitartez.

B = Sustatzailearen etekina, salmentarako gehieneko prezioaren ehunekotan adierazia (VM). Kostu horren balio normala % 11koa izanen da. Ehuneko bat gehitu edo kendu ahalko zaio justifikazio tekniko baten bitartez.

Aldagai horiek zehazteko, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapen publikoak lehentasunez hartuko dira kontuan. Era berean, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan kalifikazioa jasotzeko aurkezten diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenei buruzko datuak ere erabil daitezke. Horretarako, departamentuak sustatzaileei eskatzen ahalko die aurkez dezatela obra amaierako ziurtagiria, edo formularen aurreikusitako aldagaiak kalkulatzeko interesekoak izan daitezkeen beste datu batzuk.

5.1 Modulu ponderatua.

Babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko balioa zehaztu ondoren, modulu ponderatua honela kalkulatu da: balio hori zati babes ofizialeko etxebizitzaren eta haien eranskinen metro koadro erabilgarri bakoitzeko salmenta eta alokairuko gehieneko prezioak zehazteko ezarrita dagoen koefizientea.

5.2 Ponderatu gabeko modulu.

Ponderatu gabeko moduluaren balioa modulu ponderatuaren balioaren ehuneko 96koa izanen da.”

“6. Ezin izanen da inolako abalik eskatu alokairu publikoko errentamendu-kontratua egiteko.”

Bi. 25.1 artikuluari g) eta h) letrak gehitzen zaizkio; azken paragrafoaren edukia ere aldatzen da. Hona testuak:

“g) 5 puntu azken 2 urteetan, etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsuan izena eman zuten egunetik kontatzen hasita, epaiketa bidezko edo epaiketaz kanpoko hipoteka-exekuzioko pro-

zesu judizialen ondorioz ohiko etxebizitzatik aterazteko ebazpen judizial bat jaso duten pertsonentzat”

“h) 2 puntu alokairuko etxebizitza batean modu legalean bizitzeagatik, idatzizko kontraturik gabe, etxea beste norbaitek lagata edo beste norbaitekin partekaturik”

“b), c), d), e), f), g) eta h) letretako puntuazioak ez dira metatuko eskabide bakar batean”

Hiru. 65. artikuluari 27. idatz-zatia gehitzen zaio. Hona testua:

“27. Babestutako etxebizitzaren sustapenean behin betiko kalifikazioa eskatzeko ezarritako gehieneko epeak ez betetzea, ez eta luzapenak ere, eman baldin badira, berdin delarik azkenean kalifikazio hori lortzea etxebizitzaren adjudikazio-hartzaileen eta erosleen eskubideak eta interesak baloratzean”

Lau. VII. titulu berria gehitzen da. Hona testua:

“VII. TITULUA

Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

75. artikulua. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra.

1. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra sortzen da, titularitate publikoarekin, izaera administratibokoa eta etxebizitzaren arloan eskuduna den departamentuari atxikia.

2. Titulu honetan xedatutakoak eta hori gartzeko eman daitezkeen xedapenek arautuko dituzte Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorren antolaketa eta funtzionamendua.

76. artikulua. Helburuak eta xedeak.

1. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorra Nafarroako etxebizitzaren egoerari buruzko informazioa biltzen duen tresna da, eta helburu eta xede nagusi hauek ditu:

a) Erregistro bakar batean zentralizatzea Nafarroako etxebizitzari buruzko datuak.

b) Nafarroako etxebizitzaren egoeraren jarraipena egiteko tresna izatea.

c) Beste administrazio publiko batzuei bermatzea beren eskumenak kudeatzeko behar dituzten datuak eskura ditzaketela.

d) Politika publikoen zerbitzura dagoen tresna informatiboa izatea, foru lege honen 3. artikuluan ezarritako printzipioekin bat.

e) Etxebizitza arloko azterlan, proposamen eta proiektuak egiteko datu interesgarriak emateko bitartekoa izatea.

f) Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen etxebizitza arloko politika diseinatzeko behar den informazioa ematea.

g) Lur-ondasunen Erregistroarekin eta Nafarroako katastroekin koordinatzea eta elkar osatzea, bai eta Hiri-birgaitzeari, -berroneratzeari eta -berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako informazio sistema orokor eta integratuarekin eta sortuko lirakeen beste batzuekin ere.

77. artikulua. Jarduketak.

Aurreko artikuluan ezarritako helburuak eta xedeak betetzeko, erregistroa kudeatzeaz arduratzen den organoak lan hauek egiten ditu:

a) Modu iraunkorrean, integratuan eta eguneratuz izanen du eskura erregistroko informazio guztia, foru lege honetan jasotako aurreikuspenekin bat.

b) Edozein administrazio publikok edo haren menpeko erakundeek emandako informazioa gordetako du, erregistroaren kudeaketarako interesgarria baldin bada.

c) Lur-ondasunen Erregistroan eta Birgaitzeari, Hiri-berroneratzeari eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legearen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako informazio sistema orokor eta integratuan sartuko ditu eskatzen diren datuak.

d) Erregistroan dauden datu publikoei buruzko informazio publikoa eskuratzeko aukera bermatuko du, Foru Komunitateko Administrazioak horretarako ezartzen dituen bitartekoen bidez.

78. artikulua. Esparrua eta edukia.

1. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorrean sartuko dira Nafarroako Foru Komunitatean dauden etxebizitzak. Horretarako, etxebizitzat hartuko da etxebizitzaren arloan aplikatzeko den legeetan ezartzen dena.

2. Nafarroako Etxebizitzaren Erregistro Orokorrean sarturik egonen dira, gutxienez, etxebizitza bakoitzari buruzko datu hauek:

a) Posta eta katastroko helbidea, azalera, adina eta kokapena, georeferentziatua.

b) Nafarroako Lur-ondasunen Erregistroan titular gisa ageri den pertsona.

c) Bizigarritasun zedula edo agiri administratibo baliokidea.

d) Etxebizitzaren babes mota, babestua baldin bada, eta erabilerarako edo sarbiderako araubidea.

e) Etxebizitzaren eraikinak ba ote duen eraikinen ebaluazio txostenik.

f) Efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

g) Etxebizitza erosi, alokatu edo zahar-berri-zeagatik lortutako laguntza publikoak, baldin badaude.

h) Errentan emandako etxebizitza babestuen kasuan, datu hauek jasoko dira, gutxienez: etxebizitza errentan eman duen sustatzailearenak, errentariarenak eta onartu diren laguntza publikoenak.

i) Zantzuen arabera, hutsik dauden etxebizitzak. Etxebizitza hutsik egotearen zantzu horiek zehazteko, etxebizitzan inor erroldaturik ote dagoen egiaztatzen ahalko da, edo bertan jarduera ekonomikorik betetzen ote den. Beste zantzu batzuk ere har litezke kontuan.

j) Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuaren iritziz interesa duten beste datu batzuk.

3. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dauden datuekin sortu eta elikatuko da, bai eta beste administrazio publiko batzuetan eta haien menpeko erakundeetan har daitezkeenekin.

79. artikulua. Publikoki eskuragarria den informazioa.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean dauden datuei buruz publikoki eskuragarria den informazioa foru lege honetan ezarritakoak arautuko du.

2. Bereziki, honako hau joko da publikoki eskuragarria den informaziotzat:

a) Etxebizitzaren posta eta katastroko helbidea, azalera, adina eta kokaleku georreferentziatua.

b) Etxebizitzak bizigarritasun zedularik edo agiri administratibo baliokide indardunik duen.

c) Etxebizitzaren babes mota, babestua baldin bada, eta erabilerarako edo sarbiderako araubidea.

d) Etxebizitzaren eraikinak ba ote duen eraikinen ebaluazio txostenik, eta hala bada, zein den haren emaitza.

e) Efizientzia energetikoaren ziurtagiria.

f) Etxebizitza erosi, alokatu edo zahar-berri-zeagatik lortutako laguntza publikoak, baldin badaude.

g) Etxebizitzaren jatorria, etxebizitza hori banketxe batek exekutaturako utzarazpen batetik heldu denean”.

h) Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak ezartzen duena, datuen babesa arautzen duten legeekin bat.

3. Etxebizitzaren arloko departamentu eskudunak eskura jarriko du artikulua honetan aipatzen den informazioa, ezartzen diren bitartekoak erabiliz.

80. artikulua. Datuen babesa.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorri dagozkion fitxategiak arau hauei lotuko zaizkie: 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesari buruzkoa, eta 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, lege hori garatzen duen erregelamendua onesten duena. Aplikatu beharrekoa izanen da, halaber, Datu pertsonalak dituzten fitxategi informatizatuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esku daudenak, arautzen dituen uztailaren 26ko 143/1994 Foru Dekretuan fitxategi berrien sorrerari buruz xedatutakoa.

2. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrean fitxategiaren arduradunak behar diren neurriak hartuko ditu teknika, kudeaketa eta antolamendu aldetik, datuen isilekotasuna, segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta, halaber, behar diren neurri guztiak hartuko ditu ukitutako pertsonen beren eskubideak erabili ahal ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta aplikatu behar diren gainerako arauetan xedatu bezala.

II. KAPITULUA

Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra
sortu eta zaintzea

81. artikulua. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuaren bidez, Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra osatuko du egun duen informazioa baliatuz, gutxienez ere foru lege honen 78. artikuluan ezarritako edukiarekin bat datorrena.

2. Etxebizitzak izan ditzaketan higiezinak identifikatzeko, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak bere artxiboetan eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan

dauden datuak erabiliko ditu, eta, horretarako, haren laguntza eska dezake.

82. artikulua. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra zaintzea.

1. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorren zainketaren xedea izanen da bertan dauden etxebizitzetarako buruzko datuak mantentzea eta etengabe eguneratzea.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa arduratuko da egun erregistroan dauden datuen zainketa egokiaz. Horretarako, ahalegina egingen da foru lege honetan xedatutakoaren arabera garrantzizko informazioa izan dezaketen datu baseak eta artxiboak, eta, bestetik, Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorrekin integratzeko.

3. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortu eta zaintzeko lanetarako beharrezkoa den informazioa elkarri emanen diete administrazio publikoek, kasuko teknika eta baliabide elektronikoko, informatiko eta telematikoko erabiliz, eta ukitutakoen baimena ez da beharrezkoa izanen, datu pertsonalei dagokienez.

4. Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorren zainketaren arloan, Foru Komunitateko Administrazioari dagokio, etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuaren bidez, honako lan hauek betetzea, oro har:

a) Erregistroan dauden datuak kudeatu eta eguneratzea etengabe.

b) Egun dauden datuak aldatzeko proposamenak jaso eta gainbegiratzea, erregistroaren zainketa egokian laguntzen duten beste entitate edo pertsonen halakoak bidaltzen dituztenean.

c) Bere lana koordinatzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste edozein administrazio publikoren beste organo batzuekin, erregistroaren kudeaketarako interesa duten datuak izan ditzaketenean.

d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste edozein administrazio publikoren organoen laguntza eskatzea, Erregistroaren kudeaketarako interesa duten datuak izan ditzaketenean.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo beste edozein administrazio publikoren organoekin lan egitea Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorreko datuetan interesa izan dezaketenean.

5. Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio beharrezkoak diren neurri guztiak ezartzea, antolaketa mailakoak nahiz tekniko-

ak, erregistroaren egiazkotasuna, isilekotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta zainketa bermatzeko.

83. artikulua. Laguntza eman beharra.

1. Pertsona orok, natural nahiz juridiko, publiko nahiz pribatu, du Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorri laguntzeko betebeharra, kasuko unitate administratiboak horretarako eskaera egiten duenean, eta, horretarako, erregistroaren zainketarako eta mantentzerako behar diren datu, txosten edo aurrekari guztiak emanen dizkio. Aurrekoa gorabehera, laguntza hori eskatzen ahalko da, soilik, behar-beharrezkoa denean, eskatutako datu, txosten edo aurrekariak ez daudelako Administrazioaren artxibo eta erregistroetan.

2. Administrazioak eta gainerako entitate publikoak, eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituztenak behartuta daude Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorri ematera erregistroaren mantentze eta eguneratze lanetarako beharrezkoak diren eta etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak, bai xedapen orokorren bitartez, bai eskaera zehatzen bitartez, eskatzen dituen datu, txosten edo aurrekari garrantzizkoak.

3. Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, datu pertsonalak eman behar direnean ez da ukitutakoen baimenik behar.

Bost. Xedapen gehigarri bat, hamabigarrena, gehitzen da. Hona testua:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. Datu pertsonalak eskuratzea.

Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarrietarako aurreikusitako edozein laguntza eskatzeak esan nahi du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako ondorio eta bermeekin, bai eskatzaileek bai beren familia-unitateko kideek etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuari berriaz baimena ematen diotela, zuzenean edo beste organo edo entitate publiko batzuen bidez zeharka eskatzeko, laguntza publikoak eskuratzeko baldintzen betetzea egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa, erregistrokoa dela, katastrokoa, zerga arlokoa, ekonomikoa edo lan arlokoa, ondareari buruzkoa edo beste edozein”.

Sei. Xedapen gehigarri bat, hamahirugarrena, gehitzen da. Hona testua:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarrietarako laguntzak eta diru-laguntzak.

1. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarrietarako laguntzak eta diru-laguntzak beren arautan erregulatuko dira.

2. Arauketa hori bat etorriko da, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoarekin, eta berezitasunak ezartzen ahalko dira emate-prozedurari edo kontrol, itzulketara edo zehapenen araubideari dagokienez”

Zazpi. Xedapen gehigarri bat, hamalagarrena, gehitzen da. Hona testua:

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Hiri-kontribuzioaren ordainketa.

Babestutako etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren, hiri-kontribuzioa, betiere, errentatzaileak ordainduko du, eta ezin izanen da haren ordainketa errentariaren kargu utzi”

Zortzi. Xedapen gehigarri bat, hamabostgarrena, gehitzen da. Hona testua:

“Hamabostgarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuaren esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairuen Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak esleitzean eta berritzean, kontuan hartuko dira, diru-laguntza eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak, non eta, lan-egoeratik edo egoera ekonomikoagatik, beren diru-sarrerak ez diren gutxitu urte horretan; hala bada, berritzeko uneko datu errealei egiten zaie kasu, eta diru-laguntza eguneratzea eskatzen ahalko da edozein unetan, egoera ekonomiko hori edo lan-egoera hori aldatu denean “

Xedapen gehigarri bakarra. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaizkien moduluak.

1. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.246,53 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei 2015ean aplikatuko zaien modulu ponderatugabea 1.192,85 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indarrak gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak. Berezi, indarrak gabe gelditu da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bederatzigarren xedapen iragankorra.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitzaren arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2014ko abenduaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako 2013ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua baztertzea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, araudi fiskala aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, araudi fiskala aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, araudi fiskala aldatzekoa eta jarduera ekonomikoa pizteko neurriak hartzekoa

ZIOEN AZALPENA

Tributuen arloko politika da administrazio publikoek daukaten tresnetako bat zenbait jokabide ekonomikotarako pizgarriak emateko, eta, gainera, aberastasun-birbanaketako eraginak lortzeko, eta ez bakarrik gastu publikoa finantzatzeko baliabideak biltzeko. Nafarroaren kasuan, tributuen arloko bere foru araubidea dela eta, politika hori funtsezko elementuetako bat gertatzen da politika ekonomiko orokorra taxutzeko. Hori dela-eta, garrantzi handiko tresna bat da, eta halakotzat erabili beharra dago.

Egungoa bezalako krisi-testuinguru batean, politika horrek bilatu behar du, lehenbizi, bermatzea zerbitzu publikoei eutsiko zaiela eta haiek finantzatzeko direla. Baina, horretaz gain, jokabide batzuen pizgarri gisa lagundu behar du. Inbertsiorako, enplegua sortzeko eta berrikuntzarako laguntzek, eta azken batean jarduera ekonomikoa sortzeko, lehentasunezko gai bat izan behar dute. Halaber, eskariaren ikuspuntutik, etxeetako ekonomiak arintzeko eta kontsumoa pizteko, zergadunek aurreko urteetan egin duten ahalegin fiskalaren zati bat itzultzea lagungarri gertatuko da jarduera ekonomikoa garatzeko.

Horrenbestez, ezinbestekoa da neurri horiek –normalean zergak beheratzea dakartenak– bat etortzea kontu publikoek behar duten orekarekin, eta, bereziki, zerbitzu publikoen prestazio egokia eta iraugarria bermatuta eta segurtatuta egotearekin. Osasuna, hezkuntza eta gizarte ongizatea ezin dira gutxitu, edo haien prestazio mailak ezin dira arriskuan jarri, gehiegizko beherapen fiskal batek baliabide ekonomikoak gehiegi gutxi-

tzeagatik. Xede horretara bideratzen da foru lege hau.

Foru lege honek, lehenbizi, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aldatzen du. Aldaketa gutxi dira, baina garrantzi oso handia dutenak. Horiekin nafar guztientzat zerga-zamaren beherapen orokor baina orekatu bat ezarri nahi da, baina gehikortasun handiagoa ezarri eta azken urteetan inflazioak sortutako eraginak zuzenduz (tarte baxuak eta ertainak % 3 deflaktatzen dira), halako moduz non zerga-zamaren gutxitze bat gertatzen baita, batez ere errenta baxu eta ertainetan sentituko dena, eta neurri askoz txikiagoan errenta altuetan. Haietarako, gehieneko tasa marjinala % 48koa izanen da. Helburu horrekin, zergaren tarifa aldatzen da: tarifa orokorra zein aurrezkiarena. Azken horretan, pizgarria ematen zaio aurrezle txikiari, % 19ko gutxieneko tasa ezarrita.

Bestalde, inguruabar pertsonal eta familiarren-gatik murriztekoak diren zenbatekoak gaurkotze aldera, gutxieneko pertsonala eta seme-alabengatikoa % 5 handitzen dira, eta desgaituenak, berriz, % 10.

Azkenik, zenbait neurri ezartzen dira, familia-enpresetan ondorengotza eta jarraitutasuna errazten dutenak.

Bigarrenik, ondarearen gaineko zerga aldatzen da. Zerga horrek joan-etorri ugari izan ditu azken urteetan, eta, gaur egun, Nafarroaren kasuan, tributu hori dela-eta zergadunak desabantaila egotzen zeuden gainerako autonomia-erkidegoetako zergadunen aldean. Hartara, bada, ez zaio uko egiten tributu horren existentziari, egokitzat jotzen baita gaitasun ekonomiko handienak zergapetzeko, baina xede horretara egokitzen da, ondare txikiagoen zergapetzea kenduta, eta haren tratamendua gainerako lurraldeetakoarekin orekatzen da.

Zehazki, zerga-ordainketaren atalasea 1.500.000 euroraino igotzen da, eta horixe izanen da aitorpena aurkezteko betebeharra ezartzen duen ondasun- eta eskubide-balioa. Gutxieneko salbuetsia 800.000 euroraino igotzen da, eta tarifa % 20 jaisten da.

Azkenik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzen da. Tributu honetan, helburua da zergaren tasa nominalak jaitea, gure inguruko herrialde eta lurraldeetan bezala, baina diru-bilke-

ta arriskuan jarri gabe. Hartara, gutxieneko tasa efektibo bat ere zehazten da, izaera orokorrekoa, baina gutxieneko hori txikiagoa izan daiteke baldin eta enpresak I+G jarduerak egiten baditu, enpresa berriak sortzeko inbertsioak egiten baditu edo enplegua sortzen badu. Gainera, zenbait neurri ezartzen dira I+G+i jarduketak nabarmen indartzeko. Gainera, kenkari ugari kentzen dira, denboran zehar eraginkortasunik ez dutela demonstratu baita. Azken batean, tasen beherapen ponderatua, eta inbertsiorako, enplegurako eta I+G+i delakorako pizgarriak, horren bidez sortze aldera jarduera ekonomiko eta aberastasun handiagoa, enplegu gehiago eta, horrenbestez, diru-bilketa handiagoa.

Zehazki, enpresa handien tasa nominala % 30ekoa izatetik % 25ekoa izatera pasatzen da. Enpresa ertainen (milioi bat euro eta hamar milioi euro bitarteko fakturazioa dutenak) zerga-tasa % 23koa izanen da; enpresa txikien (milioi bat eurokoa baino fakturazio txikiagoa) zerga-tasa % 20tik % 19ra jaisten da. Alabaina, % 10eko gutxieneko tasa efektibo bat ezartzen da, zeina % 7raino jaits baitaiteke enplegua sortzeko baldintzak daudenean.

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina aldatzen da, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen den testua izanen dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren artikulua hauek:

Bat. 7.f) artikulua.

“f) Epe luzeko aurrezki planak bideratzeko erabiltzen diren bizi-aseguru, gordailu eta finantza-kontratuetatik heldu diren kapital higigarriaren etekin positiboak, Estatuko araudian ezarritakoaren arabera, baldin eta zergadunak ez badu planetik heldu den kapitala ezertarako erabili hura ireki eta bost urteko epea amaitu baino lehen.

Aipatutako kapitalaren edozein erabilpenek edo aipatutako epea amaitu baino lehen Estatuko araudian ezarritako baldintzetatik edozein ez-betetzek beraiekin ekarriko dute aurreko lerrokadan aipatutako etekinak –planak indarra izan duen aldian sortutakoak– itzultzeko betebeharra, ez-betetze hori gertatzen den zergaldian.”

Bj. 7. artikuluko v) letra kentzen da.

Hiru. 15.2.e) artikulua.

“e) Negoziazio kolektiboko prozesuetan hitzarturiko espezie-ordainsariak, erregelamenduz ezarriko diren mugekin eta moduan, bai eta ikastetxe baimenduetan emandako eskolaurre-, haur-, derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzaren, batxilergoaren, lanbide-heziketaren eta unibertsitate-hezkuntzaren zerbitzuen zenbatekoa, zerbitzu hori ikastetxe horietako langileen seme-alabei emandakoa denean, dohainik edo merkatuko prezio normala baino apalagoan; betiere, subjektu pasiboek 60.000 euro baino gutxiagoko diru-etekinak dituztenean”

Lau. 17.2 artikuluko lehen lerrokada.

“a) % 30, bi urte baino gehiagoko sortze aldia duten etekinetarako (aldian-aldian edo behin eta berriz jasotzen direnak ez badira), eta erregelamendu bidez denboran modu irregular nabarmenean jasotakotzat jotzen direnetarako. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen dira gehienez. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko. Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da murrizketa hori aplikatuko”

Bost. 18. artikulua 1. idatz-zatiko c) letra kentzen da.

Sei. 18. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra c) letra izanen da.

Zazpi. 18.2 artikulua.

“2. Aurreko idatz-zatiaren b) letrak aipagai dituen gastuen kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek lanbide-elkargoak Zerga Administrazioari aurkeztutako aitortpenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eredu eta epeetan.”

Zortzi. 25.3 artikulua.

“3. Behin, kasua bada, aurreko idatz-zatiko murrizketa aplikatu ondoren, errendimendu garbi positiboak lortu badira bi urte baino gehiagoko aldi batean edo, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, modu irregular nabarmenez denborari dago-kionez, errendimendu horiek % 30 murriztuko dira. Murrizketa hori aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen dira gehienez. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko. Murrizketa hori ez da inolaz ere aplikatuko etekinak zatika kobratzen badira”

Bederatzi. 32.2 artikulua.

“2. Foru lege honen 30.3 artikuluko 3. idatz-zatiaren a), b), c), d) eta f) letretan aurreikusitako etekin garbiak, baldin eta bi urtetik gorako sortze-

aldia badute edo, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, modu irregular nabarmenez lortu badira denborari dagokionez, % 30 murriztuko dira. Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da murrizketa hori aplikatuko.

Aurreko lerrokadako murrizketa aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen dira gehienez. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko?

Hamar. 34.6 artikulua.

“6. Jardueren errendimenduek bi urtetik gorako sortze-aldia izan badute, edo, erregelamenduz ezarritakoaren arabera, modu irregular nabarmenez lortu badira denborari dagokionez, % 30 murriztuko dira.

Aurreko lerrokadako murrizketa aplikatu ahal izateko, etekin osoak 300.000 eurokoak izanen dira gehienez. Soberakinari ez zaio inolako murrizketarik aplikatuko.

Nolanahi ere, murrizketa hori ez da aplikatuko baldin eta etekinak, haien zenbatekoa gorabehera, modu erregularrean edo ohikoan era horretako etekinak izaten dituzten enpresa- edo lanbide-jardueretatik heldu badira, nahiz eta indibidualki aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituen epearen barnean garatutako jardueren ondoriozkoak izan.

Etekin horiek zatika kobratzen badira, ez da murrizketa hori aplikatuko?

Hamaika. 39.4.c) artikulua.

“c) Enpresa baten inter vivos eskualdaketa doaneko bat egiten denean, edo eskualdaketa hori denean Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.9 artikuluan araututako salbuespena aplikatzen zaien entitateetako partaidetza guztiena edo haien zati batena. Baldintza hauek bete beharko dira:

a’) Eskualdaketa lerro zuzeneko ondorengo ahaide baten edo gehiagoren alde egitea, edo hirugarren maila bitarteko odol bidezko alboko ahaide baten edo gehiagoren alde, maila horretakoak barne.

b’) Eskualdatzailea enpresa edo lanbide jardueran aritua izatea eskualdaketa egiten den egunaren aurreko bost urteetan gutxienez ere, edo, letra honetan aipatzen diren entitateetako partaidetzak baldin badira, eskualdatzaileak eskualdaketa egin baino bost urte lehenago eskuratuak izatea, eta eskuratzailerak edo eskuratzailerak jarraitzea eskualdatzaileak egiten duen jarduera berean edo partaidetza horiek mantentzea gutxienez bost urtez, epe horretan hiltzen

badira izan ezik. Halaber, eskuratzailerak edo eskuratzailerak ez dute zilegi xedatze-egintzarik edo sozietate-eragiketarik egitea, baldin eta zuzenean nahiz zeharka eskurapen-balioaren gutxitze nabarmena ekar badezakete.

c’) Eskualdatzaileak hirurogei urte edo gehiagoko adina izatea edo baliaezintasun oso edo baliaezintasun larriko egoeran egotea.

d’) Eskualdaketa egin zen ekitaldiari dagokion zergaren aitortpenean eskualdatzaileak Administrazioari gorabehera hori azaltzea.”

Hamabi. 39.5.b) artikulua.

“b) Hirurogeita bost urtetik goitikoek edo menpekotasun larriko egoeran nahiz menpekotasun handikoan dauden pertsonak izan dezaketena ohiko etxebizitza eskualdatzen dutenean, Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Foru Legean xedatzen denaren arabera. Salbuespen hori ez da inolaz ere aplikatuko ondare-gehikuntza 300.000 eurotik gorakoa denean. Kopuru horren gainetik dagoen zenbatekoa zergapean geratuko da.”

Hamahiru. 53. artikulua.

“53. artikulua. Zati orokorra.

Zerga-oinarriaren zati orokorra aurrezkiaren parte berezian sartzen ez diren etekinek eta ondare-gehikuntzek eta -gutxitzeek osatuko dute; hauek, hain zuzen:

a) Foru lege honetako 51., 52.4 eta 52. bis artikuluetan aipatzen diren errenta egozpenak eta errendimenduak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko X. tituluko IV. kapitulua zergaldi bakoitzean elkarren artean, inolako mugarik gabe konpentsatetik eta integratetik ateratzen den saldoa.

b) Ondare-gehikuntzak eta -gutxitzeak zergaldi bakoitzean beren artean soilik konpentsatetik eta integratetik ateratzen den saldo positiboa, hurrengo artikuluan aurreikusitakoak kenduta.

Integrazio eta konpentsazioaren emaitza negatiboa bada, horren zenbatekoa konpentsatuko da aurreko a) letran aurreikusitako errenten saldo positiboarekin, zergaldi berean lortuarekin, saldo positibo horren % 25 muga gisa harturik.

Kompentsazio hori egin ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko lerrokadetan ezarritako hurrenkera berean.

Kompentsazioa hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen zenbateko gehienekoan egin

beharko da, eta ezin izanen da egin aurreko lerrokadan aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako ondare-gutxitzeei erantsiz.”

Hamalau. 54. artikulua.

“54. artikulua. Aurrezkiaren zati berezia

1. Zerga-oinarriko aurrezkiaren zati berezia honako hauek osatuko dute:

a) Foru lege honen 28. eta 29. artikuluetan eta 30. artikuluko 3. idatz-zatiko e) letran aurreikusitako ondasun higigarrien kapitalaren etekinak.

Dena dela, foru lege honen 29. artikuluan aurreikusitako ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, entitate lotu bati laga zaizkion kapital propioen zenbatekoaren soberakinari dagozkionak, zerga-oinarriaren zati orokorrean sartuko dira; soberakintzat hartuko da entitate lotuaren funts propioetan subjektu pasiboari dagokion parte bider hiru eginen eta zenbateko horren gainetik gelditzen den kopurua.

Soberakin hori kalkulatzeko, kontuan hartuko dira, batetik, entitate lotuaren funts berekien zenbatekoa, zergaren sortzapen egunaren aurretik itxitako azkeneko ekitaldiari dagokion balantzean agertzen denaren arabera, eta bestetik, egun horretan berean subjektu pasiboak duen partaidezaren ehunekoak.

Lotura ez bada bazkideen edo partaideen eta entitatearen arteko harremanean oinarritzen, kontuan hartu beharreko partaidetza-portzentajea % 5 izanen da.

b) Ondare-elementuen eskualdaketetan gertatzen diren ondare-gehikuntza eta -gutxitzeak.

Aurrezkiaren zati berezian sartuko dira, orobat, ohiko etxebizitza eskuratzegatik edo zaharberritzeagatik kapital moduan eskuratutako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak.

2. Aurrezkiaren zati berezia ondoren aipatzen diren saldoak batzetik ateratzen den saldo positiboak osatuko du:

a) Zergaldi bakoitzean, aurreko idatz-zatiko a) letran aipatzen den ondasun higigarrien kapitalaren etekinak, aurrezkiaren zati berezian sartzen direnak, elkarrekin eta ez beste ezerekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Letra honek aipaturiko integrazio eta konpentsazioaren emaitza negatiboa bada, horren zenbatekoa konpentsatuko da idatz-zati honetako b) letran aurreikusitako errenten saldo positiboarekin, zergaldi berean lortuarekin, saldo positibo horren % 25 muga gisa harturik.

Kompentsazio hori egin ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko lerrokadetan ezarritako hurrenkera berean.

b) Zergaldi bakoitzean, aurreko idatz-zatiko b) letran aipatzen diren ondare-gehikuntza eta -gutxitzeak, zergaldi horretan gertatzen direnak, elkarrekin integratu eta konpentsatu ondoren ateratzen den saldo positiboa.

Letra honek aipaturiko integrazio eta konpentsazioaren emaitza negatiboa bada, horren zenbatekoa konpentsatuko da idatz-zati honetako a) letran aurreikusitako errenten saldo positiboarekin, zergaldi berean lortuarekin, saldo positibo horren % 25 muga gisa harturik.

Kompentsazio hori egin ondoren saldo negatiborik gelditzen bada, horren zenbatekoa hurrengo lau urteetan konpentsatuko da, aurreko lerrokadetan ezarritako hurrenkera berean.

3. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako konpentsazioak hurrengo urteetako bakoitzak ahalbidetzen duen zenbateko gehienekoan egin beharko dira, eta ezin izanen dira egin idatz-zati horretan aipatzen den epetik kanpo, hurrengo urteetako etekin negatiboari edo ondare-gutxitzei erantsiz.”

Hamabost. 55.1.Zazpigarrena a) artikulua.

“a) Aurreko puntuetan jasotzen diren murrizketen gehieneko bateratua ondoren finkatzen diren kopuruetatik txikiena izanen da:

a') Norberak ekitaldian zehar jasotako laneko etekin garbien, eta lanbide edo enpresa jardueretako baturaren % 30.

Nolanahi ere, berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, aurreko ehuneko % 50 izanen da.

b') 6.000 euro urtean.

Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 8.000 eurokoa izanen da urtean”.

Hamasei. 55. artikulua 3., 4. eta 5. idatz-zatiak.

“3. Gutxieneko pertsonal pasiboarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonala subjektu bakoitzeko 3.885 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 945 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago duten subjektu pasiboentzat. Zenbatekoa 2.100 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baldin badu.

b) 2.750 euro subjektu pasibo desgaituentzat, frogatzen badute % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa dutela eta % 65ekoa baino txikiagoa. Zenbateko hori 9.900 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa duela

4. Gutxieneko familiarrangatik:

Lehena. Gutxieneko familiarra honako hau izanen da:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino errenta altuagorik jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, errenta salbuetsiak kenduta, zenbateko hauetakoa bat:

– 945 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.100 euro, aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Letra honetan aurreikusitako errenten muga, aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

- 1.732 euro urtean, lehenbizikoangatik.
- 1.837 euro urtean, bigarrenangatik.
- 2.625 euro urtean, hirugarrenangatik.
- 3.517 euro urtean, laugarrenangatik.
- 3.990 euro urtean, bosgarrenangatik.
- 4.620 euro seigarrenangatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.310 euro urtean. Zenbateko hori 4.200 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio

kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, bere adina zein ere den, 2.420 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoek gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urtealdi-errentak, salbuetsiak kanpo, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, eta desgaitasunen bat izatea, eta duten desgaitasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dela frogatzea. Zenbateko hori 8.470 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerrokadan aurreikusitako errenten muga ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren halako bi izanen da, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzeko den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bigarrena. Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Ondorengo ahaideen zaintza partekatuaren kasuetan, berdin jokatuko da.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduekin, gutxieneko familiarra gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko pertsonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batura izanen da.

5. Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeangatik.

Subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioekin zergaldian ordaindutako kopuruak, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren % 15 ere, ondoko ezaugarriak dituzten pertsonak

etxean zaintzeko lanetan aritzen direnekin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako 4.1 idatz-zatiko a) eta c) letretan aurreikusitako gutxieneko familiarra aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako terminoen arabera pertsona lagundua izatera duten ahaideengatik murrizketa aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen 4. idatz-zatiko lehen ataleko

a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Murrizketa hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu”

Hamazazpi. 55. artikuluaren 6. idatz-zatia kentzen da.

Hemezortzi. 59.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.940	13,00
3.940	512,2	4.815	22,00
8.755	1.571,5	9.295	25,00
18.050	3.895,25	13.680	28,00
31.730	7.725,65	15.120	36,00
46.850	13.168,85	8.160	40,00
55.010	16.432,85	35.630	42,00
90.640	31.397,45	34.360	45,00
125.000	46.859,45	50.000	46,00
175.000	69.859,45	125.000	47,00
300.000	128.609,45	Gainerakoa	48,00”

Hemeretzi. 59.3. artikulua.

“3. Epailearen erabakiaren ondorioz beren seme-alaben mantenurako urtesariak ordaintzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, urtesari horien zenbatekoa likidazio-oinarri orokorra baino txikiagoa bada, 1. idatz-zatian aurreikusitako eskala bereizita aplikatuko da, mantenurako ordaintutako urtesariaren zenbateko osoari alde batetik, eta gainerako likidazio-oinarri orokorrari bestetik.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoa ez da aplikatuko zaintza partekatuaren kasuetan.

Eskala modu berezian aplikatzearen ondorioetarako, mantenurako urtesariaren zenbateko osoak 6.000 euroko muga izanzen du seme edo alaba bakoitzeko”

Hogei. 60. artikulua.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		6.000	19
6.000,01	1.080	12.000	21
18.000,01	3.720	Gainerakoa	23”

Hogeita bat. 62.6 artikulua.

“6. Sindikatu-kuoten kenkaria.

Lan etekinak dituzten subjektu pasiboek sindikatuei ordaindutako kuoten % 15 kentzen ahalko dute. Kenkari horren oinarria, gehienez ere, 600 eurokoa izanen da urtean.

Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek sindikatuek Administrazioari aurkeztutako aitorpenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eredu eta epeetan.”

Hogeita bi. 62.8 artikulua.

“8. Alderdi politikoen kuoten eta ekarpenen kenkaria.

Alderdi politikoei, federazioei, koalizioei edo hautesle-elkarteei ordaindutako afiliazio-kuoten eta ekarpenen % 15eko kenkaria aplikatzen ahalko da, betiere aipatu kuotak eta ekarpenak frogatzen badira, Alderdi Politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 8.1 artikulua arabera. Kenkari horren oinarria, gehienez ere, 600 eurokoa izanen da urtean.

Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesle-elkarrekin administrazioan aurkeztu dituzten aitorpenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eredu eta epeetan.”

Hogeita hiru. 62. artikulua 9. idatz-zatia kentzen da.

Hogeita lau. 64. artikulua.

“64. artikulua. Halako kenkari batzuen muga.

1. 62. artikuluko 4., 6., 8. eta 12. idatz-zatietako murrizketen oinarrien batura ezin izanen da subjektu pasiboaren likidazio-oinarriaren % 25etik gorakoa izan.”

2. 62. artikuluko 3. eta 7. idatz-zatiek aipatzen dituzten kenkari mugak batera aplikatuko zaizkio 61. artikulua ezarritakoaren arabera finkatutako kuota likidoari.”

Hogeita bost. 65. artikulua.

“65. artikulua. Ondare-egoera egiaztatua.

62.1 artikulua aipatzen duen kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboak zergaldiaren amaieran duen ondarearen balio egiaztatuak gutxienez hasieran egiaztatutakoa baino handiagoa izan beharko du, egindako inbertsioen zenbatekoari dagokionez. Ez dira zenbatuko interesak eta finantziazioaren gainerako gastuak.

Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko zergaldiaren amaieran subjektu pasiboaren ondarearen zati izaten jarraitzen duten ondare elementuek zergaldi horretan izan dituzten balio-gehikuntzak edo gutxitzeak.”

Hogeita sei. Berrogeigarren xedapen gehigarria indargabetzen da.

Hogeita zazpi. Berrogeita batgarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatia.

Berrogeita batgarren xedapen gehigarriaren 1. idatz-zatia aldatzen da; aldaketak 2015eko urtarilaren 1etik aurrera ordaintzen diren etekinetan izanen ditu ondorioak. Hona testua:

“1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra:

URTEKO ETEKINA, EUROTAN	SEME-ALABEN ETA BESTE ONDORENGO BATZUEN KOPURUA										
	Seme- alabarik gabe	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
11.250 baino gehiago	4	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0
12.750 baino gehiago	6	4	2	0	0	0	0	0	0	0	0
14.250 baino gehiago	8	6	4	2	0	0	0	0	0	0	0
16.750 baino gehiago	10	8	6	4	1	0	0	0	0	0	0
19.750 baino gehiago	12	11	9	7	6	4	0	0	0	0	0
23.250 baino gehiago	13	12	11	8	7	5	3	0	0	0	0
25.750 baino gehiago	14	13	12	9	8	7	5	3	0	0	0
28.250 baino gehiago	15	14	13	12	10	8	7	5	3	0	0
32.250 baino gehiago	16	15	14	13	11	9	9	7	6	4	1
35.750 baino gehiago	17	16	16	14	13	12	11	9	8	6	5
41.250 baino gehiago	18	17	17	16	15	14	13	11	10	9	8
48.000 baino gehiago	21	20	20	18	17	17	16	15	14	13	11
55.000 baino gehiago	23	23	23	21	20	20	19	18	17	16	14
62.000 baino gehiago	25	25	24	23	22	22	21	20	19	18	16
69.250 baino gehiago	27	27	26	25	24	24	23	22	21	19	18
75.250 baino gehiago	28	27	27	26	26	25	25	24	23	22	21
82.250 baino gehiago	29	28	28	27	27	26	26	25	25	24	22
94.750 baino gehiago	30	29	29	28	28	27	27	26	26	25	24
107.250 baino gehiago	31	30	30	29	29	28	28	27	27	26	26
120.000 baino gehiago	33	32	31	31	30	29	29	29	28	28	27
132.750 baino gehiago	34	33	33	32	31	30	30	29	29	28	27
146.000 baino gehiago	35	34	34	34	32	31	31	30	30	29	28"

Hogeita zortzi. Xedapen gehigarri berria.

“Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Portzentajea, 2015, 2016 eta 2017an zerga-oinarriko aurrezkiaren zati berezian integratzen diren ondare-gehikuntza eta -gutxitzeen eta etekinen arteko konpentsazioarena.

54.2 artikuluko a) eta b) letrek aipatzen dituzten saldoen arteko konpentsazioaren portzentajea % 10, % 15 eta % 20koa izanen da 2015, 2016 eta 2017ko zergaldietan, hurrenez hurren.”

Hogeita bederatzia. Hirugarren xedapen iragan-korra. 5. idatz-zatia.

“5. 53.b) artikulua 2014ko abenduaren 31n indarrean daukan testuan aipatzen duen saldo negatiboaren parte, ondare-elementuen eskualdaketen ondorioz 2013 eta 2014ko zergaldietan izandakoak diren eta 2015eko urtarrilaren 1ean konpentsakizun dauden ondare-gutxitzei dago-kiena, konpentsatuko da ondare-gehikuntza eta -gutxitzeen saldo positibo 54.2.b) artikuluan aipatuarekin, bertan ezarritako erregela berei eta hurrenkera berari jarraituz.

Lehen adierazitako saldo negatiboaren gaine-rakoa konpentsatzen segituko da 53.b) artikuluan ezarritako moduan.”

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen da.

2015eko urtarrilaren 1eko ondorioekin, jarraian ematen den testua izanen dute Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen artikulua hauek:

Bat. 5. artikuluar 8., 9. eta 10. idatz-zatiak gehitzen zaizkio. Hona testua:

“8. Pertsona fisikoaren ondasun eta eskubideak, bere enpresa- edo lanbide-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz, pertsonalki eta zuzenean gauzatzen badu eta bere errenta-iturri nagusia bada. Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko artikulua honetako 9. idatz-zatiak aipatzen dituen entitateetan gauzatzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainsariak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainsari ere.

Salbuespena aplikatuko da enpresa-jarraitutasuna badagoenean baina, arrazoi ekonomikoak tarteko, errenta-iturri nagusia izatearen baldintza ez dagoenean betetzerik galerak daudelako edo jardueraren etekin positiboek modurik ematen ez dutelako errenta-iturri nagusia izateko.

Salbuespena egonen dira, halaber, bi ezkontideen ondasun eta eskubide komunak, bi ezkontideetako edozeinen enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko erabiltzen direnean, betiere aurreko errokadako baldintzak betetzen badituzte.

9. Entitateen partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko usufuktu eskubidea, entitate horiek merkatu antolatuetan kotizatu ala ez, baldintza hauek guztiak gertatzen badira:

a) Entitateak, sozietate bat izan nahiz ez izan, enpresa- edo lanbide-jardueraren bat benetan gauzatzea eta jarduera nagusizat ez izatea ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean:

a') Bere aktiboaren erdia baino gehiago balorek osatua izatea, edo bestela

b') Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerei atxikia.

Idatz-zati honetan adierazitako ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari segituko zaio. Nolanahi ere, ulertuko da entitate batek enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten duela, baldin eta aurreko a') eta b') azpiletrak aplikatuz ezartzen bada ez duela ondare higigarri nahiz higiezinik kudeatzen.

Bai aktiboaren balioa, bai jarduera ekonomiko- ei loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitateak adierazten duena izanen da, baldin eta horrek sozietatearen egiazko ondare-egoera zintzoki adierazten badu.

Aurreko jarduerari atxikirik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-parte zahazteko:

Lehena. Honako balore hauek ez dira kontatu-ko:

Legeko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

Enpresa- edo lanbide-jarduerak garatzean ezarritako kontratu harremanen ondoriozko kreditu eskubideak biltzen dituztenak.

Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

Gutxienez ere bozketa-eskubideen % 5 ematen dutenak eta partaidetzaren zuzendaritzarako

eta kudeaketarako edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra honetan agertzen ez bada.

Bigarrena. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa- nahiz lanbide-jarduerei atxikita ez dauden elementu gisa ere, eskurapen-prezioa entitateek lorturiko etekin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera ekonomikoaren ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Ondorio horietarako, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako etekintzat hartuko dira, baldin eta parte hartutako entitateak lortutako diru-sarreraren % 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira.

b) Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza % 5 izatea, gutxienez, banaka zenbatua, edo % 20, batera zenbaturik ezkontideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek dutenarekin, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik edo seme-alabaordeztatik etortzea.

c) Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza eginkizuna betetzea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria enpresa- zein lanbide-etekin eta lan pertsonaleko etekin guztien % 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, artikuluko honetako 8. idatz-zatiak aipatzen duen enpresa-jardueraren etekinak ez dira zenbatuko enpresa- edo lanbide-jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa.

Entitatean duen partaidetza aurreko letran aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, gutxienez ahaidetasun-taldeko pertsona batek bete beharko ditu zuzendaritza-zereginak eta haren ondoriozko ordainsariei buruzkoak, pertsona horiek guztiek salbueste-eskubidea izatearen kalterik gabe.

Salbuesteak partaidetzen balioari aplikatuko zaio –balio hori foru lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da– parte honetan soilik: lanbide- edo enpresa-jarduera gauzatzeko behar diren aktiboei jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen den kopuruaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokiona. Arau horiek aplikatuko dira entitate partaidetuetako partaidetzak baloratzearan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazte aldera.

10. Erregelamendu bidez zehaztuko dira honakoak:

a) Enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagoen salbuespena aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak”

Bi. 28.1. artikulua.

“1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 800.000 euro murriztuko da salbuespena dagoen gutxienekoagatik”

Hiru. 30. artikulua.

“30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Liquidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Liquidazio-oinarriaren gainerakoa, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	Hortik gora	2,00*

Lau. 31.1 artikuluko lehen lerrokada.

“1. Zerga honen kuota osoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren % 65etik goitikoa izaten ahal, eta, ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko izaeragatik edo xedeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuotaren zatia”

Bost. 31.2 artikulua.

“2. Bi kuoten baturak 1. idatz-zatian aipatzen den muga gainditzan baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da % 75 baino handiagoa izan”

Sei. 33. artikulua kentzen da.Zazpi. 36. artikulua.

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak.

Haien tributuko-kuota (zergari buruzko arauekin bat zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak eta hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean aurkeztu beharko dute nahitaez aitorpena subjektu pasiboek, edo, kasu hori gertatzen ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa (zergaren arauekin bat kalkulaturik) 1.500.000 eurotik gorakoa denean”

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako zergaldietan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen artikulua hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 37. artikulua.

“37. artikulua. Jabetza industrialaren edo intelektualaren ustia ketarengatik murrizketa.

1. Subjektu pasiboek zerga-oinarrian sartu gabe utz dezakete entitatearen jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagatzearen bitarteko ustiakuntzari dagozkion diru-sarreraren % 30ra bitarte, baldin eta lagapen hori aldi baterako egiten bada eta ez badu berarekin ekartzen kasuko ondare-elementuen besterentzea.

Zerga-oinarrian sartu gabe utzitakoaren portzentajea % 60ra bitartekoa izaten ahal da jabetza intelektual edo industrial entitateak berak garatu duenean. Ez dute inolaz ere murrizketarako esku-

biderik sortuko ondokoak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea lagatzen heldu diren diru-sarrek: literatura lanak, lan artistiko edo zientifikoak, filmak barne, lagatzen ahal diren eskubide pertsonalak, hala nola irudi eskubideak edo soilik merkataritza-aplikazioa duten programa informatiboenak.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

a) Lagapen-hartzaileak jarduera ekonomiko batean baliatzea erabilera edo ustiapenerako eskubideak, eta baliatze horren emaitzak ez daitezela gauzatu lagapen-hartzaileak egiten duen ondasun-ematean edo zerbitzu prestazioan, baldin eta fiskalki kengarriak diren gastuak sortzen badituzte entitate lagatzailean, eta, betiere azken kasu horretan, entitate hori lagapen-hartzailearekin lotuta badago.

b) Lagapen-hartzaileak egoitza ez izatea tributazio gabeko edo paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean, salbu eta Europar Batasuneko kidea den estatu batean egoitza duenean eta zergadunak frogatzen duenean haren eraketak eta operatibak arrazoi ekonomiko baliadunei erantzuten dietela eta enpresa-jarduerak egiten dituela.

3. Murrizketa hori kontuan hartu beharko da 60.1.b) artikulua aipatzen duen kuota osoaren zenbatekoa zehaztearen ondorioetarako.

4. Halaber, zergadunak bere zerga-oinarria murrizten ahalko du bere jabetza intelektual edo industrial eskuratzeko prezioaren edo ekoizteko kostuaren % 5era bitarteko zenbatekoan, hura jarduera ekonomiko baten garapenean aplikatzen den bitartean, betiere haren jabetza osoa duenean eta aurreko idatz-zatian ezarritako salbuespenekin. Murrizketa horrek ezin izanen du gainditu kenkari horri aplikatzen zaion jarduera ekonomikoaren diru-sarreraren kopuruaren % 0,5.

Baldin eta murrizketa ez bada muga horretara iritsi, zergadunak aldea murriztu ahalko du entitateak erregistratutako markak erabiltzeagatik konpentsazioaren kontzeptuan, marka horiek entitateak berak sortu baditu eta haren jarduera ekonomikoaren garapenean aplikatzen badira. Idatz-zati honetan ezarritako murrizketa bateragarria izanen da murrizketa bera kalkulatzan zaien aktibo ukiezinei dagokien amortizazioarengatik edo balio-andeatzearen ondoriozko galerarengatik kenkariarekin”

Bi. 50. artikulua.

“50. artikulua. Karga-tasak.

1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) % 25.

b) % 23, enpresa txikientzat.

Enpresa txikitat hartuko da ustiapen ekonomiko bat gauzatzen duena eta honako baldintza hauek betetzen dituena:

a') Aurre-aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia hamar milioi eurotik beherakoa izatea.

Enpresa sortu berria bada, negozio zifra hori kalkulatzeko, jarduera benetan gauzatu den lehenbiziko zergaldia hartuko da aintzat. Aurre-aurreko zergaldia urtebete baino gutxiagokoa izan bada edo jarduera hori urtebete baino gutxiagoan gauzatu bada, negozio zifraren zenbateko garbia urtea osoaren arabera izanen da.

Delako enpresa sozietate talde bateko kidea bada (Merkataritza Kodearen 42. artikulua definitzen duen bezala), negozio zifraren zenbateko garbia talde horren kide diren sozietateen multzoa aintzat hartuta kalkulatu da. Irizpide hori bera aplikatuko da baldin eta pertsona fisiko bat, bera bakarra edo ahaide dituen beste pertsona fisiko batzuekin elkar hartuta (ahaideak lerro zuzenekoak nahiz aldamenekoak izan, odol bidezkoak nahiz ezkontza bidezkoak, bigarren graduaino, bigarrena barne), kide dituen beste entitate batzuekiko Merkataritza Kodearen 42. artikulua aipatzen dituen kasuetako batean gertatzen bada.

Enpresak jarduera-adar nahiz enpresa-ondare osoa eskuratu badu, entitate eskuratzailaren negozio zifraren zenbatekoa zehazteko, entitate eskualdatzailaren zenbateko hori bera gehituko zaio, edo zergaldi horretan jarduera-adarrari zegokiona.

b') Aurreko a') letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren % 25etik gorako partaidetza, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta kapital-arriskuko Funtsak edo Sozietateak badira edo enpresak sustatzeko sozietateak, eta partaidetza entitate horien xede soziala betetzearen ondorioa bada.

Ez dira inolaz ere enpresa txikitat joko Espainia eta Europako interes ekonomikoko elkarteetan eta aldi baterako enpresa elkarteetan araubide berezipeko entitateak.

Hala ere, b) letra honetan xedatutakoa gorabehera, karga-tasa % 19koa izanen da enpresa txikiaren izaera badu, aurre-aurreko ekitaldiko negozio-zifraren zenbateko garbia milioi bat eurokoa edo gutxiagokoa izan denean. a') azpilotan adierazitako kasuetan, milioi bat euroko zifra hori taldeko entitate guztiek osatzen duten multzoari

aplikatuko zaio. b') azpilotaren kasuan, onartuko da entitatearen partaidetzaren % 25 baino gehiago aurre-aurreko ekitaldian milioi bateko edo hortik beherako negozio-zifra garbia izan duten entitateek izatea, dela zuzenean dela zeharka.

2. Honakoek % 23ko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Aseguru orokorretako mutuek, gizarte aurreikuspeneko entitateek eta Gizarte Segurantzaren lan istripuetako eta eritasun profesionaletako mutuek, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

b) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfinkapeneko sozietateak, 1/1994 Legeak, martxoaren 11koak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzkoak araupetzen dituenak, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta dauden horiek.

c) Lanbide-elkargoek, enpresaburuen elkarteek, ganbera ofizialek eta langileen sindikatuak.

d) Irabazi-asmorik gabeko entitate eta erakundeak, legezko ordezkariak karguetan aritzen direnek kobratzen ez badute eta dagokion organoaren aurrean erantzun behar baldin badute, entitate horiek ez baitituzte betetzen Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legean ezarritako tributu araubideaz baliatzeko baldintzak.

e) Enplegua sustatzeko funtsak, Birmoldaketa eta Berrindustrializazioari buruzko uztailaren 26ko 27/1984 Legearen 22. artikulua babesean sortutakoak.

f) Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioek.

g) Kredituko sozietate kooperatiboek eta Rural Kutxek.

3. Ondoko hauek % 17ko zerga ordainduko dute:

a) Fiskalki babestuak dauden sozietate kooperatiboek, kooperatibatik kanpoko emaitzei dagokien ez izan ezik, emaitza horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

b) Martxoaren 24ko 4/1997 Legeak araututako lan-sozietateek, baldin eta lortzen dituzten mozkinen % 25 sartzen badute gutxienez ere Erreserbako Funts Berezira, salbu sozietatearen jarduera berariazkoei atxikirik ez dauden ondare-elementuetatik ateratzen diren errentei dagokienez, horiei artikulua honetako 1. idatz-zatian aipatutakoaren

arabera dagokien tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Hala behar izanez gero, kontabilitateko emaitza negatiboa denean eta likidazio-oinarria positiboa, % 17ko zerga-tasa aplikatuko da.

4. Honakoek % 10eko tasa ordainduko dute: Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/996 Foru Legean ezarritako araubide fiskala edukitzeko beharkizunak betetzen dituzten entitateek.

5. Honakoek % 1eko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek, Inbertsio Kolektiboko Instituzioei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak arautzen baititu, baldin eta eskatutako akziodunen kopurua, gutxienez ere, aipatutako foru legearen 9. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

b) Aipatutako legean ezarritako finantza izaerako inbertsio-funtsek, baldin eta eskatutako partaideen kopurua, gutxienez ere, aipatutako foru legearen 5. artikuluko laugarren idatz-zatian ezarritakoa bada.

c) Lege horretan araututako higiezin inbertsiorako sozietateak eta higiezin inbertsiorako funtsak, hurrengo d) letran aipatzen direnak ez bezalakoak direnak, betiere eskatzen den akziodunen edo partaideen kopurua, gutxienez, foru lege horren 5. eta 9. artikuluetako laugarren idatz-zatian aurreikusitakoa baldin bada, eta inbertsio kolektiboko erakunde ez-finantzarioak izanik, haien helburu eskusiboa edonolako hiri ondasun higiezinetan inbertitzea baldin bada, gero errentan emateko.

Idatz-zati honetan aurreikusitako karga-tasa aplikatzeko beharrezkoa izanen da aurreko lerrokadan aipatutako inbertsio kolektiboko erakundeen aktiboa osatzen duten ondasun higiezinak ez besterentzea eskuratzen direnetik gutxienez hiru urte igaro arte, non eta Balore Merkatuaren Bartzorde Nazionalak, salbuespen gisa, berariazko baimena ematen ez duen.

Ondasun higiezin horiek c) letra honetan aipatzen den gutxieneko epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentagatik zergako karga tasa orokorra pagatu beharko da. Gainera, entitateak, ondasuna eskualdatzen den zergaldiko kuotarekin batera, beste zenbateko bat ere ordaindu beharko du, hots, c) letran aurreikusitako araubidea aplikatu behar zen zergaldi bakoitzean higiezinari dagozkion errentei honako hau aplikatzearen ondoriozkoa: kasuan kasuko zergaldian indarra zuen karga-

tasa orokorraren eta % 1eko tasaren arteko diferentzia, deusetan galarazi gabe bidezko diren berandutza interesak, gainkarguak eta zehapenak.

c) letra honetan ezarritakoa aplikatuko da, bakar-bakarrik, sozietatearen estatutuetan dibidenduak ez banatzea ezarrita badago.

d) Ondasun higiezinetak inbertsio-sozietateek eta ondasun higiezinetak inbertsio-funtsek (azaroaren 4ko 35/2003 Legean arautzen direnak), c) letran aipatzen diren betebeharez gain, bakar-bakarrik errentan jartzeko etxebizitzak sustatzen badituzte eta baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Ondasun higiezinetak inbertsioek, ondasun higiezinak sustatzeko jarduerari lotuak badaude, ezin gaindituko dute ondasun higiezinetak inbertsio-sozietate edo -funtsoaren aktibo osaren % 20.

Bigarrena. Ondasun higiezinak sustatu eta errentan jartzeko jardueran kontabilitate berezia egiten da eskuratu edo sustaturiko ondasun higiezin bakoitzeko. Beharrezkoa den xehaketa egiten da, hura zatiturik dagoeneko etxebizitza, lokal edo erregistroko finka bakoitzari dagokion errenta ezagutzeko, c) letran aurreikusirik portzentajeari dagokionez aktibo osoko inbertsioak kontatu beharra deusetan galarazi gabe.

Hirugarrena. Ondasun higiezinetak inbertsio sozietate edo funtsek sustapenaren ondoriozko ondasun higiezinak errentan emanda edo eskainita eduki beharko dituzte zazpi urtez gutxienez. Epe hori eraikuntza bukatzen den egunetik aurrera kontatuko da. Ondorio horietarako, higiezinaren eraikuntzaren bukaera egiaztatuko da obrako azken ziurtagiriaren bidez, Eraikuntzaren Antolaketari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 6. artikuluan xedatu bezala.

Ondasun higiezin horiek d) letra honetan edo aurreko c) letran aipatzen den gutxieneko epea bukatu baino lehen eskualdatuz gero, eskualdaketa horren ondoriozko errentagatik zergako karga tasa orokorra pagatu beharko da. Gainera, entitatea beharturik egonen da ondasuna eskualdatu zueneko zergaldiko kuotarekin batera honakoa ordaintzera: d) letra honetan aipatzen den araubidea aplikatzeko zeneko aurreko zergaldi bakoitzean ondasun higiezinaren errentei zergaldi bakoitzean indarra zuen karga-tasa orokorraren eta % 1eko tasaren arteko aldea aplikatetik ateratzen diren kopuruak, deusetan galarazi gabe berandutza korrituak, errekarquak eta bidezko diren zehapenak.

Ondasun higiezinetan inbertitzeko sozietate eta funtsek, etxebizitzak errentan emateko etxebizi-

tzak sustatuz gero, jakinarazi egin beharko diote Zerga Administrazioari, jarduera hori hasten den zergaldian.

e) Hipoteka merkatua arautzeko funtsa, Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 25. artikuluan ezarria.

6. Ekainaren 8ko 8/1987 Legeak arautzen dituen pentsio-funtsek % 0ko zerga-tasa ordainduko dute”

Hiru. 51. artikulua.

“51. artikulua. Kuota osoa, kuota efektiboa eta gutxieneko zerga-ordainketa.

1. Kuota osoa izanen da likidazio-oinarriari karga-tasa aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

2. Kuota efektiboa izanen da titulu honen II., III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako hobari eta kenkariaren zenbatekoan kuota osoa murriztetik ateratzen den zenbatekoa.

3. 50. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritako karga-tasen arabera zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboaren kasuan, kuotaren gaineko kenkariaren aplikazioak –salbu eta 66. artikuluan araututako ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik kenkariaren kasuan eta 63. artikuluan araututako inbertsioengatik kenkariaren kasuan– ez du berarekin ekarriko kuota efektiboa txikiagoa izatea zera baino, likidazio-oinarriaren gainean % 10eko portzentajea aplikatuz ateratzen den zenbatekoa baino, zenbateko horri honakoa murriztuta: 58. artikuluko hobariaren eta titulu honetako III. kapitulu bakoitzeko nahiz nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariaren batura bider 50. artikuluan araberako aplikatzea den karga-tasa egitearen emaitza.

Aurreko lerrokan ezarritako portzentajea % 7koa izanen da, baldin eta subjektu pasiboak zergaldian zehar gutxienez % 5 handitzen badu plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteekin alderatuta”

Lau. Indarrik gabe uzten da 57. artikulua.

Bost. 69. artikulua.

“69. artikulua. Biomasa-instalazio termikoetan inbertitzeagatik kenkariak.

Kuota likidoaren % 15eko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortuko dute entitatearen ustiatze ekonomikoaren garapenari atxikita dauden eta erregai bezala biomasa erabiltzen duten instalazio termikoetan eginiko inbertsioek.

Eragin horietarako, beharrezkoa izanen da energiaren arloko organo eskudunak egiaztapen-txosten bat eman dezala eginiko inbertsioen kopuruari buruz, non, halaber, egiaztatuko baita instalazioak zerbitzuan jarri direla kasuko araudi sektorialean ezarritakoaren arabera”

Sei. Indarrik gabe uzten dira artikuluko hauek: 66. bis, 68. bis, 70. bis, 70. ter eta 70. quater.

Zazpi. 70. artikulua.

“70. artikulua. Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik kenkariak.

1. Espainiako film luze zinematografikoen eta ikus-entzunezko serieen (fikziokoak, animaziokoak edo dokumentalak) ekoizpenetan egindako inbertsioek, seriean egiteko ekoizpen industrialaren aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, % 35eko kenkarirako eskubidea emanen diote ekoizleari. Kenkariaren oinarria produkzioaren guztizko kostuak osatuko du, bai eta kopiak egiteko eta publizitate gastuetarako gastuek eta ekoizlearen kargurako sustapen gastuek ere, bi kasuetan produkzio-kostuaren % 50eko mugaraino.

Kenkari-oinarriaren % 25, gutxienez, Nafarroako lurraldean egindako gastuena izanen da.

Baterako ekoizpenaren kasuan, idatz-zati honetan adierazitako zenbatekoak baterako ekoizle bakoitzak finkatuko ditu hartan daukan partaide-tza-ehunekoaren arabera.

Artikulu honetan aipatzen den kenkaria obra-aren ekoizpena bukatzen den zergalditik aurrera eginen da. Hala eta guztiz ere, ekoizpenak hamabi hilabete baino gehiagoko epea duenean eta entitatearen zergaldi batean baino gehiagotan eragiten duenean, entitateak zilegi izanen du kenkaria aplikatzea ordainketak egiten diren neurrian eta ordainketa horien zenbatekoan, kenkaria hasteko datan kenkarietarako indarrean dagoen araudia aplikatuta.

Kenkari-oinarria gutxituko da kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioak finantzatzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoan.

Idatz-zati honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72.3 artikuluan aipatzen den mugatik. Muga hori kalkulatzeko erabiliko den ikuspegitik, kenkari hori ez da zenbatetsiko. Kenkari honen aplikazioan ez du eraginik izanen, ezta ere, foru lege honetako 51.3 artikuluan araututako tasak.

2. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Enpresa Zinematografikoen Erregistroan izen

emanda dauden ekoizleek, film luze zinematografi-koen ekoizpenaz edo seriean eginiko ekoizpen industrialak egin baino lehenagoko euskarri fisikoa egiteko modua ematen duten ikus-entzunezko obren ekoizpenaz arduratzen direnek, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen % 35eko kenkaria aplikatzeko. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenean gutxienez ere astebeteko filmatzea egin beharko da Nafarroako barnealde edo kanpoaldeetan, salbu eta behar bezala justifikatutako inguruabarrengatik epea laburragoa denean, Nafarroako Foru Komunitatean ezin egiteagatik.

Kenkariaren oinarria Nafarroako lurraldean egin eta ekoizpenarekin zuzeneko lotura duten honako gastuek osatuko dute:

Lehena. Sormenaren arloko langileen gastuak, baldin eta egoitza fiskala Espainian edo Europako Esparru Ekonomikoko kidea den estaturen batean badate, 50.000 euroko mugarekin pertsona bakoitzeko.

Bigarrena. Industria teknikoak eta bestelako hornitzaile, garraio, ostatu eta mantenuak erabiltzetik heldutako gastuak, ekoizpenerako beharrezkoak direnak.

Idatz-zati honetan aurreikusitako kenkaria salbuetsita egonen da foru lege honetako 72.3. artikuluan aipatzen den mugatik. Muga hori kalkulatzearan ikuspegitik, kenkari hori ez da zenbatetsiko. Kenkari honen aplikazioan ez du eraginik izanen, ezta ere, foru lege honetako 51.3 artikuluan araututako tasak.

Idatz-zati honetan ezarritako kenkaria ez da aplikatuko zerbitzuak hartzen dituen ekoizleak artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako kenkaria aplikatzen duenean.”

Zortzi. 71. artikulua 1., 2. eta 3. idatz-zatiak.

“1. Zergaldian zehar lan-kontratu mugagabea duen plantillaren batez bestekoan gehikuntzarik izan baldin bada, urtean batez bestekotik gora izan den pertsona bakoitzeko 5.000 euroko kenkaria aplikatuko da kuotan. Horretarako, kontuan hartuko da zergaldiaren aurre-aurreko hamabi hilabeteetan kontratu mota hori zuen plantillaren batez bestekoa. Ondorio horietarako, sortu berri diren entitateen kasuan, eratu aurreko aldiaren zero langile izan dituztela zenbatuko da.

Plantillan izan den batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, bakar-bakarrik zenbatuko da zenbat pertsona dauden urtean lan-kontratu mugagabearekin. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen araberrako proportzioan kontatuko dira.

Kenkariak, guztira, ez du gaindituko zergaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoan urtean gehitutako pertsona kopuruari lego-kiokiena, edozein izanik kontratazio modua.

2. Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa mantenduz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada eta gehikuntza hori entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza baino handiagoa bada, pertsona eta urte bakoitzeko 2.000 euroko kenkaria aplikatuko da bi gehikuntza horien arteko diferentziagatik.

Aurreko zergaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuz, plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa handitzen bada, aurreko lerrokan aipatu kenkaria eginen da aipatu den gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez besteko murrizketaren arteko diferentzia positiboaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako kenkariak 6.800 eta 3.200 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, urtean kontratatzen den langile minusbaliatu bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulaturik, eta aurreko idatz-zatietan ezarritako prozedurak erabiliz”

Bederatzi. 72. artikulua.

“72. artikulua. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariari buruzko arau komunak.

1. 63., 64., 65., 69. eta 70. artikuluek aipatzen duten kenkaria aplikatzeko eskubidea noiz sortzen den zehazteko, 42.2 artikulua bigarren lerrokan xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala bada-gokio.

2. Kapitulu honek aipatzen dituen kenkariaren oinarria kalkulatzeko, 42.3 artikuluan xedatutakoa aplikatzen ahalko da, hala badagokio.

Inbertsioari edo jarduerari lotutako diru-laguntza bat ematen bada kenkaria aplikatzeko zergaldiaren ondoko zergaldi batean, subjektu pasiboak zergaldi horri dagokionez egin behar duen aitortzean sartuko du kenkariaren oinarria murriztearen ondorioz soberan kendutako kuotaren zenbatekoa.

3. Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak ezin izanen dute osotara gainditi kuota likidoaren % 25, zeina ateratzen baita kuota osoa murriztetik hobariekin eta barneko nahiz nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariarekin. Muga horretatik salbuetsita egonen dira 66. eta 70. artikuluetan araututako kenkariak, eta 63. artikulukoak, jardue-

ra hasi arte; kasu horietan, kenkariak kuota likido osoa hartzen ahalko dute.

Ondare-elementuetan egindako inbertsioa egiten denean hurrenez hurren eta modu berezitan funtzionamenduan sartzen diren zenbait fase edo etapatan –elementu horiek globalki unitate bat osatuta ere–, ulertuko da jarduera-hasiera bakoitza gertatu dela fase bakoitza funtzionamenduan sartzearekin, eta fase bakoitzaren hasiera baino lehenagoko inbertsioei ez zaie aplikatuko aurreko lerrokadara araututako muga.

Kuota aski ez izateagatik kentzen ez diren kopuruak aplikatu ahalko dira, muga bera errespetatuz, hurrengo hamabost urteetan amaitzen diren zergaldietako likidazioetan. Ondorio horietarako, subjektu pasiboak frogatu beharko du, dagokion moduan, kontabilitatea eta behar diren dokumentuak erakutsiz, kenkarien jatorria eta zenbatekoa, sortu direneko zergaldia edozein dela ere.

Kapitulu honetan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko epeen zenbaketa emaitza positiboak lortzen diren lehenengo zergaldira arte geroratu ahalko da, kasu hauetan:

a) Entitate sortu berrietan.

b) Aurreko zergaldietako galerak baliabide berriak benetan jarriz onbideratzen dituzten entitateetan, halakotzat hartzen ez delarik erreserben aplikazioa edo kapitalizazioa.

4. Inbertsio edo gastu batek ezin izanen du kenkaria entitate batean baino gehiagotan aplikatzeko biderik eman.

5. Kenkariak baliatzeko, ibilgetuaren barnean kontabilizatu beharko dira egiten diren inbertsioak, gaineko ondare-elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanen duen epigrafe baten pean. Halaber, subjektu pasiboaren ondarean bost urtez gutxienez egon beharko dute, edo haren balio-bizitzan, laburragoa balitz, gastu arrunt gisa hartzen diren kontzeptuen kasuan izan ezik.

6. Kenkarien aplikazioa ordena honen arabera egin beharko da:

Hobariak eta barneko nahiz nazioarteko ezarpen bikoitzagatiko kenkariak gauzatu ondotik, lehenbizi aurreko zergaldietan sortutako kenkariak aplikatuko dira, foru lege honetan ezarritako mugak errespetatuz.

Ondotik, aurreko 3. idatz-zatian ezarritako muga aplikatu dakiekeen kenkariak, ekitaldikoak, aplikatuko dira; betiere, aurreko lerrokadako kenkarien eta lerrokada honetakoen artean osotara % 25eko muga gainditzen ez den bitartean.

Horren ondoren, kuota likidoaren gainean mugarik gabe aplikatzen diren kenkariak, foru lege honetan aurreikusiak, gauzatuko dira.

7. Kenkariok subjektu pasiboak bere borondatez eginiko aitortpenetik ateratako kuotari aplikatuko zaizkio, bai eta Administrazioak gauzatutako tributu erregularizaziotik ateratzen den kuotari ere.”

Hamar. 87. artikulua.

“87. artikulua. Ikerkuntza zientifikoko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatiko kenkariari dagokion berariazko itzulketa.

1. 50.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa txikitzat hartzen diren subjektu pasiboek 66. artikuluan ezarritako kenkariaren itzulketa eskatzen ahalko dute, hain zuzen, 2011. urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sorrarazi eta kuota likido aski ez izateagatik aplikatu ezin izan zena.

2. Itzulketa egiteko, arau hauei jarraikiko zaie:

Lehena. 72. artikuluan adierazitako arauak aplikatu ondoren, kasuan kasuko zergaldian kentzeke dagoen kopurua itzuliko da. Diru-muga 100.000 eurokoa izanen da.

Bigarrena. Zergaren aitortpenean eskatuko da eta 86. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio, epeei, berandutza-interesei eta, kasua bada, behin-behineko likidazioari dagokienez, ofiziozko itzulketak egiteko.

Hirugarrena. Itzulketa eskatuz gero, itzulketaren kopuruak ezin izanen dira gero kenkarietan sartu, salbu eta itzulketa ukatu baldin bada.

3. Ahalmena ematen zaio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari artikulua honetan ezarritako itzulketaren berariazko ezaugarriak zehazteko.”

Hamaika. Xedapen gehigarri berria.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren indarraldia eta ondorioak luzatzen dira 2015. urtean hasten diren zergaldietarako.”

Hamabi. Xedapen iragankor berria.

“Berrogeita zortzigarren xedapen iragankorra. Zerga-tasaren aldaketaren ondorioz aplikatzekoa izan den aldi baterako araubidea.

Subjektu pasiboa zerga-ordainketa aritu bada egiten, 50. artikuluan babesean, karga-tasa jakin baten arabera, aukera izanen du 2014ko abenduaren 31n indarra duen zerga-tasa aplikatzen jarraitzeko, baldin eta tasa hori handiagoa bada 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera legokiokeena

baino. Aukera hori erabiliko dela Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinarazi beharko zaio, 2014ko zerga-aitorpena egiteko epean. Ekonomia eta Ogasun Departamentuari aukera horri uko egin zaiola jakinarazi aurretik amaitzen diren zergaldietan, egungo zerga-tasa aplikatuko da.”

Hamahiru. Xedapen iragankor berria; 2014an hasitako zergaldietatik aurrera izanen ditu ondorioak.

“Berrogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Salbuespena likidazio oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzeari.

Likidazio oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzea, zeina hogeita hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarrita dagoen, ez zaio aplikatzekoa izanen subjektu pasiboarekin lotu gabeko hartzekodunekin iritsitako akordio baten ondoriozkoak diren kitei dagozkien errenten zenbatekoari.”

Laugarren artikulua. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen Hamargarren artikuluko Hiru atala aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hiru. Bingoa.

2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bingoa zerga-oinarria hau izanen da: jokalariak jokoan parte hartzeko erabiltzen dituzten kantitateen batura, sarietarako erabilitako kantitatea kendurik; eta aplikatzekoa den tributu tasa % 25 izanen da.”

Bosgarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 18. artikulua aldatzen da.

Bat. 18. artikulua 1. idatz-zatiko b) eta c) letrak kentzen dira.

Bi. 18.1 artikulua b) letra gehitzen zaio. Hona testua:

“b) Ondasunen edo eskubideen eskuraketen edo eskualdaketen ondorio direnean, edozein tituluren bidez, entitatearen desegitea edo likidazioa dela-eta lortutakoak barne.”

Xedapen gehigarri bakarra. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikuluan ezarritako gutxieneko zerga-tasa ez aplikatzea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 51. artikulua ez zaie aplikatuko Nafarroako Kooperatiben Araubide Fiskala ezartzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen arabera babes berezia duten kooperatibei, ez eta babes berezia duten nekazari-tzako kooperatibak diren lehentasunezko elkarte-ustiatzeari ere. Ez zaie aplikatuko, halaber, foru lege horren laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren kooperatibei.

Xedapen iragankor bakarra. Sozietateen gaineko zergaren araubide iragankorra ezartzea aplikatzeko dauden kenkarietzat, 2015eko urtarrilaren 1aren aurretik hasitako zergaldiei dagokienez.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Lege honetako VI. tituluko IV. kapituluaren ezarritako kenkariak, 2014ko abenduaren 31n indarra zuen testua kontuan hartuta, aplikatzeko badaude 2015eko urtarrilaren 1ean hasten den lehen zergaldiaren hasieran, 72. artikuluan ezarritako baldintza eta mugekin aplikatu ahalko dira, azken data horretatik aurrera indarra duen testuaren arabera.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau indarren sartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, aldeztu aurretik Nafarroako Parlamentuari jakinarazita, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 15.2.e) artikulua –foru lege honek aldatu baitu– aipatzen duen garapen-erregelamendua emanen du.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioak izateko.

Foru Legea, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2014ko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, ondoko foru legea onetsi zuen: "Foru Legea, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, ondoko foru legea aldatzekoa: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako

ZIOEN AZALPENAK

Irailaren 25eko 17/2014 Foru Legearen bidez ondoko foru legea aldatu zen: 20/2012 Foru Legea, abenduaren 26koa, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Aldaketa horren xedea izan zen, zioen azalpenan adierazten den bezala, zehaztea Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ze manuren ez-betetzeaz ari den 15 g) artikulua, abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearena, zeinaren bidez ezartzen baita toki ogasunek

transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

Arau-aldaketa hori dela-eta, bidezkoa da epea egokitzea, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoagatik Nafarroako udalentsako konpentsazio-eskabideak aurkeztekoa, halako moduan non udalek 2014a bukatu baino lehen aurkeztu ahal izan dezaten kasuko eskabidea, baldin eta lehengo araudiaren babesean ez bazuten halakorik aurkeztu 2014ko urtarrilean.

Artikulu bakarra. Bigarren lerrokada bat gehituko zaio Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 26ko 20/2012 Foru Legearen 15 d) artikuluari. Hona testua:

"Eskabidea, ekarpen horrek 2013ko ekitaldian izandako zenbatekoari eta xedeari buruzko ziurtagiriarekin, 2014a bukatu aitzin aurkezten ahalko da."

Xedapen gehigarri bakarra. Aurrekontu-kredituak.

Foru lege hau aplikatzen heldu den gastua ezin baldin bazaio egotzi Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten 2013 eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako funtsari, orduan, Toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten 2015eko aurrekontu-ekitaldirako funtsari egotziko zaio gastua.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.